



# ETA KOOPERATIBA AGROEKOLOGIKO BAT SORTUKO BAGENU?

**Erronketan oinarritutako  
ikaskuntza kolaboratiboa (LH)**

**Eta kooperatiba agroekologiko bat sortuko bagenu?  
Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa (LH)**

Argitaratzaileak:



Calle Floridablanca 66-72 local 5  
08015 Barcelona  
Tel. • 93 423 70 31 • Fax 93 423 18 95  
[educacion.madrid@justiciaalimentaria.org](mailto:educacion.madrid@justiciaalimentaria.org)  
<https://justiciaalimentaria.org>  
<https://redalimentacion.org/>



Zubiria Etxea. UPV/EHU  
Lehendakari Agirre etorb. 83 • 48015 Bilbo  
Tel.: 94 601 70 91 • Fax: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

Arabako Campuseko Liburutegia. UPV/EHU  
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel. • Fax: 945 01 42 87 • [gema\\_celorio@ehu.eus](mailto:gema_celorio@ehu.eus)  
[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

**Itzultzailea:** Iñigo Gallastegi

**Diseño y maquetación:** Lucía Sanz Martínez eta David Roldán Vicario

**Inprimatzailea:** Gráficas Uncilla

**ISBN:** 978-84-16257-66-9

**Lege-gordailua:** BI-00127-2021

Laguntzailea:



Argitalpen honek Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren (AECID) diru-laguntza izan du. Argitalpenaren edukiaren erantzukizuna Hegoa Institutuarena eta Bidezko Elikadura elkartearena da soilik eta ez du zertan AECIDen iritzia adierazten.



**Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia**

Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri. Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>





## AURKIBIDEA

Aurkezpena .....	4
Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa. Lanbide Heziketan elkadura burujabetza lantzeko proposamena .....	7
Lanbide Heziketako gure ikastetxean kooperatiba agroekologiko bat sortzea .....	12
Ikasketaren Helburuak / Emaitzak.....	13
Taldeak sortzen ditugu .....	20
Emango ditugun urratsen laburpena .....	22
Lan-proposamenaren azalpena .....	25
Amaierako ospakizuna eta emaitzak zabaltzea.....	51
Baliabide material eta pedagogiko gehigarriak.....	52
Oharrak / Argazkien atribuzioak .....	55
1. eranskina. Soziokrazia, hurbilketa laburra .....	56
2. eranskina. Hausnarketa-egunkaria (kolektiboa, taldekakoa).....	60

## AURKEZPENA

**A**urkezten dizugun gidaliburu hau curriculum-exenplifikazio bat da, Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboaren (EOIK) metodologia garatzen duena, eta Nekazaritza Ekologikoko Erdi Mailako Heziketa Ziklora zuzenduta dago.

Bertan, genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren kontzeptua erabiltzen dugu, honek aldaketa-proiektu bat irudikatzen baitu, gizarte- eta ingurumen-ondorio larriak dituen gaur egungo elikadura-eredu agroindustrialetik beste eredu batera igarotzeko asmoa duena. Eredu berri horrek bermatuko ditu herriek elikagai nutri-tiboak, kulturalki egokiak, eskuragarriak eta modu iraunkor eta ekologiko batean ekoiztuak izateko duten eskubidea, eta beren elikadura eta ekoizpen sistema auke-ratzeko eskubidea. (Nyéléni adierazpena - Elikadura Burujabetzaren Munduko Foroa, Sélingué, Mali, 2007).

Ekoizpen agroekologikoa, bada, elikadura burujabetza bermatzeko aukerarik egokiena da eta EOIK metodologia lagungarria da alderdi bi hauek lotzeko: batetik, ikaske-ta-egoerak eta, bestetik, dagokion lanbide-garapenarekin lotutako benetako arazo- en ulermena, azterketa, eztabaida eta horien aurrean erantzunak ematea.

Premisa hori, hau da, errealitatearekiko lotura izatea, garrantzitsua da, ikasketa esan-guratsu eta adierazgarria bultzatzen duelako. Hartara, errazagoa da gazteek beren prestakuntza prozesuari zentzua ematea, lanean estrategia kolaboratiboak aplikatzea eta ingurunearekin konprometitutako kontzientzia kritikoa garatzea.

Hura garrantzitsua da baita ere, antolaketa horrek arazoei erantzunak emateko. EOIK metodologiak eskaintzen duen estrategia metodologikoan, bada, ikasleek hausnartu, diseinatu, ikertu, planifikatu eta abian jarri beharko dute emandako erronka gainditzeko aukera erreal, bideragarri eta iraunkor bat.

Kasu honetan, erronkaren helburua, hau da, kooperatiba agroekologiko bat sortzea, aukera interesgarria da irakaskuntza-ikasketa prozesua eta lanbide-jarduerari lotutako benetako praktika lotzeko.

Era berean, exenplifikazio honetan, garrantzitsua da lanaren planteamendu osoan genero ikuspegia, gazteen eta herritarren ahalduntzea eta partaidetzaren ikaskuntza aplikatzea.

Horietako lehena, hau da, genero-ikuspegia, elikadura burujabetzaren esparru teoriko-praktikoan bertan dago; izan ere, horren printzipio inspiratzaileen artean ditugu gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, zaintza eta bizitzaren iraunkortasuna. Proposamen pedagogikoan ere badago, horrek hausnartzera eta generoko estereotipoak, rolak eta suposizioak gainditzera bultzatzen baititu ikasleak, neska-mutilen gaitasunak handitzeko eta banakako eta taldekako lana arduratsua eta ekitatiboa izan dadin sustatzeko.

Premisa horietatik abiatuta gazteen eta herritarren ahalduntzea lantzen da. Ikasleak, bada, beren ikasketa-prozesuaren protagonistak dira, helburu komun bat lortzeaz arduratzen ikasten dute eta proiektu bat gauzatzeko behar den estilo, gaitasun, jarrera eta balio aniztasunaz konturatzen dira, horretan guztiok lagunduko dutelarik, salbuespenik gabe. Prozesu horretan, gainera, errealitatearen gainean duten ezagutza handituko dute, elikadura-eredu hegemonikoak dituen inpaktuez jabetuko dira eta gizarte-justizian eta iraunkortasunean oinarritutako proposamen alternatibo batekin konprometituko dira.

Azpimarratu nahi dugu, halaber, soziokraziak deliberazio-prozesuak eta erabakiak hartzeko prozesuak parte hartzekoagoak egiteko duen ahalmena. Izan ere, gehiengo eta gutxiengoen jokoak proposatzen dituen ohiko mekanismoak gaindituz, soziokraziak entzutea du helburu, iritzi guztiak kontuan hartzea. Hala, adostasunari dagokionez, aurkako ahotsak baztertzen dituen eta akordioak behartzen dituen interpretazio soila gaindituz, soziokraziak onespena proposatzen du. Horrek esan nahi du erabakiak hartu ahal izango direla aurkako iritzi arrazoitu eta/edo funtsezkorik ez dagoenean bakarrik. Proposamen sistemiko bat da. Bere helburua kolektibo batek modu organiko eta harmoniko batean jardutea eta autorregulatzen, autogestionatzen eta autoebaluatzen ikastea da, ardurakidetzan eta partaidekidetzan oinarrituta.



Proposamen honetan, bada, funtsezkoa da irakasleen zeregina: hezkuntza-prozesu osoa dinamizatzeko; ikasleak tutorizatzeko eta laguntzeko -banaka zein kolektiboki-; beste moduluetako irakasleekin honelako proiektuak koordinatzeko, horiek lankidetzara eta diziplinartekotasuna eskatzen baitituzte...

Baina funtsezkoa dela diogu, batez ere, irakasleak eragile kritikoak direla ulertzen dugulako:

- Beren irakaskuntza-jarduera interes askatzaile batean oinarritzen dutenak eta hezkuntza-ekintzari balio politikoa ematen diotenak;
- Curriculumaz jabetzen direnak, horri sozialki garrantzitsua den zentzua emateko;
- Herritartasun kritikoa eraikitzen duten irakaskuntza-ikasketa estrategiak gauzatzeko gaitasun pedagogikoa dutenak;
- Neska-mutilak ahalduntzen dituztenak, subjektu aktibo, parte-hartzaile eta gizarte-eraldaketarekin konprometitu gisa gara daitezten.

Material hau exenplifikazio bat besterik ez denez, zehaztasun-maila unitate didaktiko batena baino txikiagoa da. Aukera asko zabalik daude, eta irakasleak dira horiei buruzko erabakiak hartzeko egokienak, beren beharren arabera. Horregatik guztia-gatik, dagokien hori egitera animatu nahi ditugu irakasleak: hura moldatu, eraldatu, aberastu eta testuingurura, lurraldera, ikastetxera eta hezkuntza komunitatera egokitu.

Prozesu horretan erabilgarria izatea nahi genuke.

Aurkezpen hau bukatu aurretik, eskerrak eman nahi dizkiegu gurekin lan egin duten Lanbide Heziketako irakasleei, proposamen hau haiekin partekatu baitugu. Haien begiradak ezinbestekoak dira guretzat. Eskerrak eman nahi dizkiogu bereziki Kordobako IES Galileo Galilei institutuan irakasle den Elena Tejedor Gonzalez, iradokizun garrantzitsuak egin dizkigulako esku artean duzuen exenplifikazio hau hobetzeko.

## **Bidezko Elikadura eta Hegoa**

# ERRONKETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA KOLABORATIBOA

**Lanbide Heziketan elikadura burujabetza  
lantzeko proposamen**



*“Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa. Egoera problematiko bat planteatzea, hura erronka bihurtzea, eta, azken finean, emaitza lortu arte ematen den prozesu osoa ziklo bakoitzeko kompetentzia tekniko eta espezifikoetan oinarrituta egituratzen da, baita une horretan izaera estrategikoa duten zeharkako kompetentzietan ere.*

*Egoera problematikoak, kasu guztietan, taldeka antolatutako gela batean aurkezten dira. Horretan, lan-prozesuak aukera eman behar die ikasleei egoera erronka bezala bizitzeko eta, horren bitartez, irtenbiderik egokienak emateko beharrekoa den ezagutza sortzeko”.* (<https://tknika.eus>)

## Zer aldaketa eragiten du Lanbide Heziketako ikastetxeetan?

Sozialki garrantzitsua den curriculum lantzeko aukera ematen du. Hura Lanbide Heziketako ikasleak familia eta titulu bakoitzaren eduki eta kompetentzietan trebatzeko balio izango du, baina beren jarduera profesionala gidatu beharko duen begirada kritikoa eta etikoa ahaztu gabe.

Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboak, elikaduraren sektore zabalean zentratuta, nagusi diren ekoizpen- eta kontsumo-ereduen ondorioak ikusteko aukera ematen digu, baita horiek elikadura burujabetzan oinarritutako beste elikadura-eredu batzuekin alderatzeko ere.

Ikastetxea herritartasun globala, kritikoa eta gaitua sustatzen duen erakunde bilakatzen du, nagusi den elikadura-sistema eraldatzeko helburua duena. Izan ere, sistema horrek desparekotasunak eta gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-ondorioak eragiten ditu mundu mailan zein tokian.

### Ikasleak

- Kontzienteagoak eta kritikoagoak, errealitate lokal-globalaz jabetzen dira.
- Lan kooperatiborako gaitasunak garatzen dituzte.
- Benetako arazoen aurrean izan daitezkeen konponbideak sortzen dituzte.

### Irakasleak

- Beste sail batzuekin koordinatuta lan egiten dute.
- Ezagutzak, estrategiak eta metodologiak partekatzen dituzte.
- Ikasleen garapen profesionala bultzatzen dute, gizarte-erlidaketa sustatzea ahaztu gabe.

### Familiak

- Beren elikadura ohiturak birplanteatzen dituzte.
- Ikastetxearen elikadura-trantsizioan parte hartzen dute.
- Elikaduraren arloan erabaki aduratsuak hartzen dituzte.

### Gainontzeko

#### hezkuntza-komunitatea


- Ikastetxea komunitateari zabaltzen zaio (ekoizleak, tokiko merkatariak...).
- Gizarte eragileek ikastetxea laguntzen dute.



## Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboaren urratsak

- 1 Erronka gelan aurkeztu
- 2 Problematikara lehen hurbilketa
- 3 Aldez aurretik ditugun ezagutzez jabetu
- 4 Behar dugun informazioa eskuratu eta antolatu
- 5 Prozesuari buruzko ideiak eta alternatibak sortu
- 6 Talde bakoitzaren aurrerapenak aurkeztu
- 7 Lan-plangintza bat adostu
- 8 Ekintzak planifikatu
- 9 Lanari ekin
- 10 Emaidzak partekatu eta azaldu
- 11 Emaidzak ebaluatu

## Problematika: elikadura txarra



STAR Legacy Cycle (Cordray, Harris y Klein, 2009).

**Erronkak.** Beren komunitateetan aplikatzekoa den eta elikadura burujabetzaranzko trantsizioan kokatzen den aldaketa kritiko bat identifikatzen lagunduko duten galderak planteatzen dira.


**Ideiak sortu.** Erronkari buruzko lehen hausnarketak. Ikerketa prozesuan erantzun behar izango ditugun funtsezko galderak, proposamena mugatzen lagunduko digutenak. Inplikaturako moduluei dagokienez, egingo duten lanaren itemak planteatuko dira.

**Ikuspegi anitz.** Erronkari aurre egiteko hainbat modu. Ikuspegi anitz aplikatzea, adibidez, zaintzaren etikatik<sup>1</sup>, ikuspegi feministetatik<sup>2</sup>, ekosozialetatik<sup>3</sup>, parte hartzen duten eragileen testuinguru eta egoeratik...

**Ikertu eta berrikusi.** Informazioa hainbat ikuspuntutik bilatzeko momentua, zehaztutako arazoari erantzun egokiena emateko. Fase honetan, IKTek zeregin garrantzitsua dute, baina ez ditugu beste iturri batzuk ahaztu behar (testigantzak, elkarrizketak, bisitak...).

**Egiaztatu.** Konponbidea norberaren testuinguruan aplikatzea, horren egokitasuna frogatzeko edo aldaketa zehatzak erakusteko.

**Emaitza argitaratu.** Zabalkundea eta komunikazioa. Emaitzak ezagutzera emango ditugu, zabalkunde-tresna egoki bat aukeratuz. Dagokionean, zehaztutako erronkari emandako konponbideak gauzatuko ditugu. Ebaluazioa eta autoebaluazioa. Prozesua kontuan hartu behar da, talde-lana eta ikasitakoa baloratu...





## Zer beste gauza garrantzitsu hartu behar da kontuan proiektu on bat egiteko?

- Proiektua Urteko Plangintza Orokorrean sartuta egotea.
- 3-4 sailekin haztea (4-6 irakasle). Hurrengo urtean parte hartzen duten sail kopurua handitzeko aukera dago.
- Parte hartzen duten irakasleei koordinazio ordu bat ematea astean.
- Moduluen artean kronogramaren denborazkotasuna koordinatzea eta aldaketak komunikatzea.
- Proiektuaren hasierako kronograma gehiegi ez kargatzea; izan ere, badakigu jarduera askok aurreikusitakoak baino saio gehiago eskatzen dituztela. Beti dago jarduerak gehitzeko aukera.
- Gelan berez sortutako taldeen artean desparekotasunak egotekotan, hauek homogeneoak izan daitezten esku hartzea, lanaren potentzialtasuna kontuan hartuta.
- Proiektua ikasleena dela gogoratzea: parte-hartzea, norberaren ardura, sormena eta informazioaren zehaztasuna sustatzea, eta aukera ematea haiek aukeratzeko nola aurkeztu nahi dituzten lanaren emaitzak.



# LANBIDE HEZIKETAKO GURE IKASTETXEAN KOOPERATIBA AGROEKOLOGIKO BAT SORTZEA



## NEKAZARITZA

### NEKAZARITZA EKOLOGIKOKO TEKNIKARIA HEZIKETA ZIKLO OSOA

#### ERRONKAN PARTE HARTZEN DUTEN MODULUAK

- Agronomiaren oinarriak
- Labore ekologikoak ezartzea
- Nekazaritza ekologikoa
- Abeltzaintza ekologikoa
- Nekazaritza-produktu ekologikoak merkaturatzea
- Enpresa eta ekimen sortzailea

**ANTOLAKETA: 5 KIDETIKO 5 TALDE**

## Kooperatiba agroekologikoa. Deskribapen laburra

Ikasleak, irakasleen tutoretzapean, kooperatiba agroekologiko bat abian jarri beharko dute. Horren bitartez, ikastetxeko ortuan eta negutegietan hazitako produktuak merkaturatuko dituzte. Gainera, soziokrazia erabiliko dute autoantolaketarako marko gisa eta erabakiak parte-hartzearen bitartez hartuko dira, modu horizontalean eta guztion onespenerekin.

## Ikasketaren helburuak / Emaitzak<sup>4</sup>

### HELBURUAK

Eskualdeko errealitate sozioekonomikoak eskaintzen dituen aukerak identifikatzea, norberaren eta besteen arrakasta-aukerak aztertuz, bizitzan zehar espiritu ekintzaile bat mantentze aldera.

Ikasketa-aukerak eta lan-arloarekiko harremana identifikatzea eta balioestea, merkatuaren eskaintzak eta eskaerak aztertuz, eguneraketa- eta berrikuntza-espirtua mantentze aldera.

Negozio-aukera ezagutzea, merkatuaren eskaerak identifikatuz eta aztertuz, enpresa txiki bat sortze eta kudeatze aldera.

Gizarteko eragile aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak ezagutzea, gizarte-eta lan-baldintzak arautzen dituen lege-esparrua aztertuz, herritar demokratiko bezala parte hartze aldera.

## IKASKETAREN EMAITZAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

### Agronomiaren oinarriak (AO)

**IE1. Erabilgarri dauden informazioak aztertu eta klima eta laboreen gaineko ondorioak ezaugarritzen ditu.**

- b) Zonalde bereizgarri edo ezagunetako mikroklima deskribatu da.
- c) Nekazaritzan eragina duten meteorokoak deskribatu ditu.
- f) Mapa meteorologikoak interpretatu ditu.
- g) Nekazaritza-jarduerak kliman duten eragina baloratu du.

**IE2. Lurzoru motak eta horien ezaugarriak identifikatzen ditu, analisi bidez lortutako datuak interpretatuta**

- a) Lurzoruaren propietate fisikoak, kimikoak eta biologikoak deskribatu ditu.
- e) Analizatuko diren laginak prestatu ditu.

- f) Laginak analizatu ditu ezarritako analisi-protokoloei jarraiki.
- g) Analisisien emaitzak erregistratu eta interpretatu ditu.

**IE4. Espezieen behar hidrikoak zehazten ditu, eta, eginkizun horretan, ur/lurzoru/landare erlazioa aztertzen du.**

- a) Ureztatzeko uraren jatorria eta kalitatea baloratu du.
- b) Lurzoruan ura atxikitzeke ahalmena zehaztu du.
- f) Ureztatzeko dosia eta maiztasuna kalkulatu ditu.
- g) Ureztatzeko sistemak deskribatu ditu lurzoruaren, uraren, landarearen eta topografiaren ezaugarrien arabera.
- h) Ingurumenari buruzko araudia interpretatu du.

**IE7. Erabiliko dituen ongarriak ezaugarritzen ditu eta haien erabilera ezagutzen du.**

- a) Landareentzako elementu nutritiboak identifikatu ditu.
- c) Dauden ongarri moten propietateak deskribatu ditu.
- d) Medeagarri organikoen funtzioak eta lurzoruan duten portaera deskribatu ditu.
- e) Karezko medeagarrien funtzioak eta lurzoruan duten portaera deskribatu ditu.
- g) Ongarriek lurzoruan duten portaera eta landareari gehitzea deskribatu du.
- h) Hidroponian eta fertirrigazioan erabiltzen diren ongarriak identifikatu ditu.
- i) Ongarri-nahasteek hidroponian eta fertirrigazioan duten garrantzia baloratu du.

**Labore ekologikoak ezartzea (LEE)**

**IE2. Ustiategi ekologikoetan txandakatzeak, elkartzeak eta polilaborantzak ezartzen ditu, eta biodibertsitatearekin eta lotutako onurekin erlazionatzen ditu.**

- a) Kasu bakoitzean ezarriko diren espezieen ezaugarri botanikoak identifikatu ditu.
- b) Lurzoru mota ezarriko diren espezieekin erlazionatu du.
- f) Txandakatze, elkartze eta polilaborantzetan erabili behar diren espezieak aukeratu ditu.
- g) Txandakatzeak, elkartzeak eta polilaborantzak ezartzean ziurtapen-prozedurak interpretatu ditu.
- h) Nekazaritza ekologikoari buruzko araudia aplikatu du, txandakatzeak, elkartzeak eta polilaborantzak ezartzeari dagokiona.



**IE3. Lurra eta substratuak labore ekologikoak ezartzeko prestatzen ditu, eta lurzorua mantentzeko eta emankortasuna hobetzeko teknikak interpretatu eta aplikatzen ditu.**

- a) Ezaugarri edafikoak eta topografikoak aztertu ditu.
- d) Ureztatzeko sistema hautatu du.
- f) Ongarriak eta behar diren medeagarriak zehaztu eta aplikatu ditu.
- g) Lurra eta hazitegietako substratua laboreen arabera prestatzeko lan ekologikoak egin ditu.
- i) Makineriaren lehen mailako mantentze-lanak egin ditu.
- k) Lurra eta substratuak prestatzeko lanetan nekazaritza ekologikoari buruzko araudia aplikatu du.



**IE4. Landare-material ekologikoa erein eta landatzen du, eta bertako baliabide fitogenetikoaren erabilera justifikatzen du.**

- a) Hazitegiak ereiteko teknikak erabili ditu.
- b) Aukerei, elkartzei eta polilaborantzei erantzungo dieten belarkiak eta barazkiak ereiteko eta landatzeko esparrua zehaztu du.
- d) Hazi ekologikoen dosia kalkulatu du.
- e) Patroi eta barietate ekologikoak hautatu ditu.
- h) Labore ekologikoentzako lehen zaintzak deskribatu ditu.
- j) Belar- eta barazki-laboreak ereiteko eta landatzeko eragiketak egin ditu.
- k) Fruta-arbolen saila egin du.
- l) Ereiteko eta landatzeko makineria hautatu eta erabili du.
- o) Ereiteko, landatzeko eta birlandatzeko lanetan nekazaritza ekologikoari buruzko araudia aplikatu du.

### **Nekazaritza ekologikoa (NE)**

**IE2. Konposta egiten du, eta ustiategiko hondakin organikoen transformazio-prozesuak deskribatzen ditu.**

- a) Dauden konpost-makinak identifikatu ditu.
- b) Konpostajearen erabiltzen diren materialak identifikatu ditu.
- c) Konpostaje-prozesuan esku hartzen duten faktoreak aztertu ditu.
- d) Konpostaje-sistemak deskribatu ditu.
- e) Konpostajearen erabiltzen diren materialen nahasketak egin ditu.

- f) Konposta iraultzeko eragiketak egin ditu, eta hartzidurekin erlazionatu ditu.
- g) Konposta egiteko erreminta, tresneria eta makineria espezifikoak erabili ditu.

**IE3. Laboreak behar dituzten mantenugaiez hornitzen ditu, eta horien ondorioak lurzoruaren emankortasuna mantentzearekin edo areagotzearekin erlazionatzen ditu.**

- a) Laboreen behar nutritiboak identifikatu ditu.
- c) Ongarri berdea aukeratu du laborearen ezaugarriak kontuan hartuta.
- d) Ongarri berdea une egokian gehitu du.
- e) Laborearen eta lurzoruaren emankortasunaren arabera eman behar den materia organikoa eta ongarri minerala hautatu ditu.
- g) Ongarri organiko eta mineralen dosiak kalkulatu ditu.
- h) Ongarritzeko eragiketak une egokian egin ditu.

**IE4. Ureztatzeko sistema maneiatzen du, eta horren ondorioak lurzoruaren higadurarekin, mikrobio-aktibitatearekin eta laboreen behar hidrikoekin erlazionatzen ditu.**

- d) Ureztatzeko lanak egin ditu sistema kontrolatzeko elementuak manipulatu.
- e) Laboreen, belardien eta hazitegien behar hidrikoak beteta daudela egiaztatu du.

**IE5. Laboreen eta hazitegien laborantza-eragiketak egiten ditu, eta agrosistemaren iraunkortasuna eta osasuna aztertzen du.**

- b) Txertatzeko lanak egin ditu hainbat teknika erabilia .
- c) Inausteko eragiketak egin ditu hainbat labore-espezietan hainbat teknika erabilia.
- e) Bakantzeko, kimu berriak inausteko, udako kimaketa egiteko eta zurkaiztatzeko eragiketak egin ditu.

## **Abeltzaintza ekologikoa (AE)**

**IE1. Animaliak produkzio ekologikoaren sistemara egokitzeko maneiatzen ditu, ezarritako arauak eta protokoloak interpretatuta.**

- a) Animalien portaerari buruzko oinarritzko nozioak deskribatu ditu.
- b) Maneiatzeko sistema hautatu du animalia-aren espeziearen, arrazaren, sexuaren eta adinaren arabera.
- g) Instalazioen ingurumen-baldintzak egiaztatu ditu.
- j) Abeltzaintza ekologikoari buruzko araudia eta animalien ongizateari buruzkoa aplikatu ditu.

**IE2. Abereak elikatzeko eragiketak egiten ditu, produkzio ekologikoaren arauak interpretatuta.**

- a) Hornikuntza-beharrak ezarri ditu.
- c) Elikagaiak aldez aurretik egokitu ditu.
- g) Elikadura kontrolatzeko beharrezkoak diren datuak erregistratu ditu.
- i) Abeltzaintza ekologikoari buruzko araudia eta animalien ongizateari buruzkoa aplikatu ditu.

**IE3. Abereen larreratzea maneiatzen du, eta inguru-nearen iraunkortasuna eta ekosistemaren hobekuntza baloratzen ditu.**

- a) Abere-zamaren kontzeptua deskribatu du.
- b) Larrearen eta bazkaren nutrizio-kalitatea baloratu du.
- d) Lursailak aprobetxamendurako egokitu ditu. ustiapenerako prestatu dira.
- i) Abeltzaintza ekologikoari buruzko araudia eta animalien ongizateari buruzkoa aplikatu ditu.

**IE5. Animaliak eta horien produktuak ekologikoki ekoizteko eragiketak egiten ditu, legeria espezifikoak interpretatuta.**

- a) Ingurumen-erresistentzia handiena eskaintzen duten arraza autoktonoak aukeratu ditu.
- b) Hazteko, aurrerakoak hazteko eta gizontzeko eragiketak deskribatu ditu espeziearen arabera.
- e) Arrautza ekologikoak biltzeko, sailkatzeko, garraiatzeko eta biltegitratzeko eragiketak banan-banan aipatu ditu.
- g) Produktu ekologikoak lortzeko higie- eta osasun-arazo nagusiak deskribatu ditu.
- h) Simaur ekologikoa lortzeko eragiketak egin ditu.
- j) Abeltzaintza ekologikoari buruzko araudia eta animalien ongizateari buruzkoa aplikatu ditu.

**Nekazaritza-produktu ekologikoak merkaturatzea (NPEM)**

**IE1. Nekazaritza-produktu ekologikoak merkaturatzeko modua ezaugarritzen du, eta merkaturatze-bideak aztertzen ditu.**

- c) Merkatu-azterketa bat egiteko etapak banan-banan aipatu ditu.
- d) Merkatu-azterketetan lortutako datuak interpretatu ditu.
- h) Nekazaritza-produktu ekologikoen salerosketa egiteko moduak definitu ditu.



- i) Ordaintzeko moduak deskribatu ditu.
- j) Nekazaritza-produktu ekologikoen merkaturatzea arautzen duen araudia identifikatu eta interpretatu du.

#### **IE2. Nekazaritza-produktu ekologikoak sustatzeko eta saltzeko teknikak hautatzen ditu, eta dauden aldaerak aztertzen ditu.**

- a) Bezeroen erosteko jokabidean eta motibazioan esku hartzen duten aldagaiak deskribatu ditu.
- b) Produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarriak ezagutzeak salmentan duen eragina baloratu du.
- c) Sustapen- eta publizitate-teknikak identifikatu ditu.
- d) Hainbat bideren bidezko sustapena eta salmenta baloratu du.
- f) Nekazaritza-produktu ekologikoak sustatzeko eta saltzeko teknologia berriak erabili ditu.
- g) Ordaintzeko bideak deskribatu ditu eta produktuaren sustapenean duten eragina azaldu du.

#### **IE4. Nekazaritza-produktu ekologikoen prezioa kalkulatu du, produkzio-prozesua eta merkaturatzea aztertuta.**

- c) Produkzio-kostuak kalkulatzeko metodoa deskribatu du.
- e) Interesen, deskontuen eta merkataritzako marjinen kontzeptuak eta formulak interpretatu ditu.
- f) Produktu-unitateko produkzio-kostua zehaztu du.
- g) Ezarritako mozkin jakin bat duen nekazaritza-produktu ekologikoaren prezioa finkatu du.

### **Enpresa eta ekimen sortzailea (EES)**

#### **IE2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-idea aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.**

- c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.



**IE3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.**

- a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.

**IE4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.**

- a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- b) Kontabilitate-informazioa aztertzeke oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.
- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
- e) Sektoreko ETE batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- f) Dokumentazio hori enpresa-planeari barne hartu du.

## Taldeak sortzen ditugu

Lehenik, lan-proiektua gauzatuko duten ikasle-taldeak zehaztu beharra dago (5 talde, bakoitza 5 ikaslek osatuta). Egokiena da taldeak ikasleen eta irakasleen adostasunaren bitartez sortzea. Taldeak berez sor daitezke eta gero, behar izatekotan, irakasleak aldaketak proposatu ditzake. Edo, zuzenean, taldeak sortzeko teknikaren bat erabil daiteke. Nolanahi ere, taldeek heterogeneoak izan behar dute, partaideek gaitasun desberdinak ekartze aldera.

**Soziograma** (<http://sociograma.net/sociograma-online/>) • **Hada** (<https://ethazi.tknika.eus/eu/taldeak-sortzeko-teknikak/>) • **“Koloretako” eredia** (<https://ethazi.tknika.eus/eu/taldeak-sortzeko-teknikak/>) • **Gaitasunetan oinarritutako eredia** (<https://ethazi.tknika.eus/eu/taldeak-sortzeko-teknikak/>)

## HURRENGO URRATSAK

I. Batzorde hauek esleitzea proposatzen dugu, lantalde bakoitzari bat:

- **Landa/ortu taldea.** Labore estentsiboak eta baratzeko laboreak. Talde honek kudeatuko du zer erein/landatu, zenbat, non, zer material behar dugun, zer mantentze-lan egin behar den, nola zaintzen dugun landareen osasuna, noiz egiten dugun uzta...
- **Negutegi taldea.** Barazkiak, lurraz kanpoko laboreak: landare gaztea, usain-belarrak eta landare apaingarriak. Talde honek kudeatuko du zer erein, zenbat, non, zer material behar dugun, zer mantentze-lan egin behar den, nola zaintzen dugun landareen osasuna, noiz egiten dugun uzta...
- **Oilategi taldea.** Arrautzen eta oiloen ekoizpena. Zer arraza, zenbat oilo, zer produktu kalitate espero dugu, nola lortu hori, nola hobetu instalazioak, animalia-ongizatea, nola zaintzen dugu osasuna, ekoizpena.
- **Kudeaketa ekonomiko taldea.** Merkatu-ikerketa. Merkaturatzea. Erosketak, gastuak kontrolatzea, diru-sarrerak kontrolatzea, fakturak erregistratzea.
- **Kooperatiba taldea (pertsonek eta enpresa).** Kooperatiben ezaugarriak, balio etiko eta sozialak; horren eraketan, jardueran eta estatutuetan bete beharreko arauak. Nekazaritzako produktu ekologikoen merkaturatzea arautzen duten arauak, sustapen- eta publizitate-teknikak eta teknologia berrien erabilera, produktuen prezioa.

Kontuan hartu behar dugu kooperatiba bat sortzeko erronka gela osoarentzat dela; beraz, sortutako talde bakoitza kooperatiba sortzeko behar diren elementuetako bat ikertzeaz arduratuko da. Helburu komun hori lortzeko talde guztiek elkarrekin lan egitea funtsezkoa da proposamen honetan.

2. Eztabaida eta lan-prozesua zehaztea, partaidetzaren eta elkarlanaren bitartez, norberaren eta taldearen ardurak betetzeko konpromiso argiarekin. Horretarako soziokrazia proposatzen dugu, lana antolatzeko eta erabakiak hartzeko estrategia gisa.
3. Lan-plangintza, faseak, behar diren batzordeak eta bakoitzari egokitutako eginkizunak zehaztea.
4. Lan-plangintza abian jartzea. Taldeetan, batzordeetan eta batzarrean banakako lanerako eta partekatzeko uneak mugatzeko epeak zehaztu behar dira (hainbat ziklo izan ditzakete).
5. Kooperatiba agroekologikoa abian jartzea.
6. Ebaluazioa eta komunikazioa.

## **Taldeek soziokraziaren printzipioen arabera lan egingo dute<sup>5</sup>**

- Erabakiak onespeneren bitartez hartzen dira. Bakarrik hartuko dira erabakiak objekzio guztiak entzun direnean eta horiek proposamena eraldatu dutenean. Edozein objekziok "arrazoitua eta funtsezkoa" izan behar du. Normalean, txanda-sistema bat erabiltzen da eztabaidatzeko eta objekzioak aztertzeko.
- Taldea zirkuluen bitartez antolatzen da. Zirkulu bakoitza erdiautonomoa da bere jarduera- eta erantzukizun-eremuan. Zirkuluak erakundean betetzen duten esferaren garapenaz eta arrakastaz arduratzen dira.
- Zirkuluek lotura bikoitzak dituzte. Zirkulu bakoitzak ordezkari bat izendatzen du gaineko zirkulu bakoitzerako eta gaineko zirkulu bakoitzak ordezkari bat azpiko zirkulu bakoitzerako. Ordezkariak eskubide osoko kideak dira bi zirkuluetan, eta berrelikadura-ziklo bikoitza osatzen dute. Talde txikietan, elkarri lotutako zirkulurik ez dagonean, batzar orokorra egin dezakegu kide guztiekin, gaineko eta azpiko zirkuluetarako ordezkariak izendatu gabe.
- Rolak eta ardurak beteko dituzten pertsonak onepen bitartez hautatzen dira. Horrek esan nahi du, bada, erabakiak hartzeko prozesu bera erabiltzen dela lanpostuak egokitzeko: pertsonak proposatzen dira, argudioak aurkezten dira eta guztion onespenerarekin hautatzen dira.

# EMANGO DITUGUN URRATSEN LABURPENA

ERRONKA			
<p>Kooperatiba agroekologiko bat sortu behar da, soziokraziaren arauak aplikatuz. Horren helburua, ikastetxeko zenbait ikasketa-eremutan (ortua, landa, negutegia, oilategiak...) produzitutako elikagaiak merkaturatzea izango da.</p>			
5 TALDE			
Landa/ortu taldea	Negutegi taldea	Oilategi taldea	Kudeaketa ekonomiko taldea
URRATSAK		ZERTAN DATZA	
<p><b>1. Erronka gelan aurkeztu</b></p> <p>Egoera hipotetiko batetik abiatuta, ikasleei erronka aurkeztuko zaie, baita hura lortzeko eta ebaluatzeko bete beharko dituzten eginkizunen oinarritzko eskema ere.</p>			
<p><b>2. Problematikara lehen hurbilketa</b></p> <p>Nagusi den elikadura-ereduaren funtzionamendura lehen hurbilketa egingo dugu, ikasleek horren ondorioak ezagutu ditzaten. Hainbat galdera egingo dizkiegu, izan daitezkeen alternatibetan pentsatzen has daitezten.</p>			
<p><b>3. Aldez aurretik ditugun ezagutzez jabetu</b></p> <p>Hainbat galdera egingo dizkiegu (horietako zenbait lantzeko, kontsultarako eta/edo sakontzeko materialak eskainiko dira). Horien bitartez ikasleek dakitenaz jabetuko dira (aldez aurreko ezagutzak), lehen alderaketa bat egingo dute ezagutza horien zehaztasuna egiaztatzeko eta lan-prozesuan zer alderditan sakondu beharko duten jakiteko.</p>			



<p><b>4. Behar dugun informazioa eskuratu eta antolatu</b></p>	<p>Lantalde bakoitzak zenbait item ikertu beharko ditu prozesuan duen ardua betetzeko. Ikasleak item horien eta ebaluazioak landuko dituen ikasketaren emaitzen arteko loturaz jabetuko dira. Lehen lan-plangintza zehaztu beharko dute: informazio-bilketa antolatu; erabiliko diren iturriak identifikatu; eskuratutako informazioa sistematizatu; gainontzeko lantaldeekin partekatu, koordinazio-sistema baten bitartez; eta astero landutakoa, bizi izandakoa eta sentitutakoa erregistratu, hausnarketa-egunkari kolektibo batean.</p>
<p><b>5. Prozesuari buruzko ideiak eta alternatibak sortu</b></p>	<p>Une honetan, bildutako informazioa aztertu, garrantzitsuena identifikatu eta ondorioak atera beharko dira, bi zentzu hauetan: a) talde osoan eztabaidatzeko proposamenak eta b) lana bideratzeko estrategiak, talde bakoitzak hartzen duen ardurari lotuta. Halaber, erabaki beharko dute emaitzak nola aurkeztuko dizkieten gainontzeko taldeei (aurkezpen-modalitatea eta bozeramailetza -indibiduala edo kolektiboa-). Lan kooperatiboaren eta genero-ikuspegiaren garrantzia azpimarratu beharra dago.</p>
<p><b>6. Talde bakoitzaren aurreapenak aurkeztu</b></p>	<p>Une honetan, orain arte egindako aurrerapausoak aurkeztuko ditugu, gela osoak lan globala ikus dezan eta hurrengo urratsean prozesuarekin aurrera jarraitzeko behar diren erabakiak hartzeko aukera izan dezan.</p>
<p><b>7. Lan-plangintza bat adostu</b></p>	<p>Aurreko urratsean bost taldeek gelarekin partekatu duten informazioarekin, deliberrazki, eztabaidako eta erabakiak hartzeko prozesua abiaraziko da. Hura soziokraziaren printzipioen eta arauen arabera antolatuko da. Fase hau bukatzerako, kooperatiba agroekologikoaren funtsezko funtzionamendu-egiturari buruzko oinarrizko akordioak lortu behar izango dituzte.</p>



URRATSAK	ZERTAN DATZA
<p><b>8. Ekintzak planifikatu</b></p>	<p>Talde bakoitzak kronograma ahalik eta errealistena egin beharko du, aurreikusitako ekintzak zer ordenetan egingo dituen erabakiz. Hemen, ikasleei hausnartzeko, lanaren banaketa sexualari buruzko hausnarketa bat proposatzen da, haiek lan kooperatibo, kolaboratibo eta ez-sexistako eredu bat proposa dezaten, zaintzan eta berdintasunean oinarritutako talde giro batean. Taldean hausnarketa sustatzeko zenbait ideia emango dira.</p>
<p><b>9. Lanari ekin</b></p>	<p>Talde guztiek "landa-lanari" ekingo diote. Hainbat ekintza eta jarduera proposatuko dira eta taldeek horiek antolatu eta gauzatu beharko dituzte kooperatiba agroekologikoa abian jarri ahal izateko.</p>
<p><b>10. Emaitzak partekatu eta azaldu</b></p>	<p>Talde bakoitzak lan-prozesuaren emaitzak baloratuko ditu: kanpoko ikuspuntu batetik, hau da, zenbateraino bete dira helburuak eta lagundu da erronka kolektiboki lortzen; eta barruko ikuspuntu batetik, balorazio autokritikoa, hau da, taldeak eta partaide bakoitzak nola jardun duen (giro ona, elkar zaintzea eta laguntzea, harreman atseginak, ekitatea...).</p>
<p><b>11. Emaitzak ebaluatu</b></p>	<p>EOIK proposamen honetan gauzatutako irakaskuntza-ikasketa prozesua ebaluatzeko aukera emango duten zenbait errubrika proposatzen ditugu -irakasleentzat eta ikasleentzat-.</p> <p>Gainera, emaitzak zabaltzeko eta ospatzeko amaierako jarduera bat egitea proposatzen dugu.</p>
<p><b>Amaierako jarduera: zabalkundea eta ospakizuna</b></p>	<p>Talde osoak, irakasleekin batera, amaierako jarduera bat diseinatuko du, ondo egingako lana ospatzeko eta emaitzak hezkuntza-komunitate osoari zabaltzeko helburuz.</p>

# LAN-PROPOSAMENAREN AZALPENA



## Erronka

Kooperatiba agroekologiko bat sortzea da, soziokraziaren arauak aplikatuz, eta ikasketxeak dituen ikasketa-eremuetan (ortua, landa, negutegia, oilategiak...) ekoiztako elikagaiak merkaturatzeko helburua izango duena. Ekimen horren bidez, epe labur/ertaineko proiektu bat abiaraz daiteke, tokiko elikadura-sistema bat antolatzen lagun dezakeena, eta, horrez gain, ekimen inklusiboak eta zaintzakoak ere sar ditzakeena, ikasketa-zerbitzu metodologia aplikatuz.

## GOGORATU

Lankidetzaharremanak sor daitezke beste heziketa-ziklo edo eskualdeko beste ikastetxe batzuekin, adibidez, Merkataritza eta Marketin arloko zikloarekin. Hala ere, harremanak sor daitezke beste talde batzuekin, hala nola kontsumo-taldeekin, tokiko ekoizleekin, eskola-jantokiekin...



## I. Erronka gelan aurkeztu

Ezagutu duzue, dagoeneko, Agroekologiaren aldeko Hirien Sarea (<https://www.ciudadesagroecologicas.eu/>). Espainiako Estatuko tokiko hainbat erakundek sortutako elkarteak da, tokiko erakundeen artean lankidetzaren dinamika bat sortzeko helburua duena, baita horien eta gizarte zibilaren artean ere. Horren bitartez, tokiko elikadura-sistemak sortu nahi dira, ingurumena errespetatzen dutenak, iraunkorrak, inklusiboak, erresilienteak, seguruak eta dibertsifikatuak, biztanle guztientzat janari osasungarria, jasangarria eta eskuragarria bermatzen dutenak eta tokiko enplegua sustatzen dutenak, agroekologiaren eta elikadura burujabetzaren ikuspegiekin bat.

Ekimen bikaina dela uste duzue eta ahal duzuen neurrian lagundu nahi diozue mugimendu horri. Aldi berean, ikastetxean bertan kooperatiba agroekologiko bat sortzeko ekimen ekonomikoa sustatzea bururatu zaizue. Hura tokiko ekoizleen sarearekin, eskualdeko gizarte-eragileekin eta tokiko merkatuan eta herrian dauden elikagai-denda txikiekin inplikatu da.

### EGINKIZUNAK

1. Eratu ditugun taldeekin karguak eta ardurak banatu behar ditugu soziokraziak proposatzen duen bezala. Hala, koordinazio-batzar orokorretan talde bakoitzak ondo ordezkaturata egon beharko du.
2. Ikastetxeak ekimena laguntzeko dituen baliabideen eta guneen (ortua, landa, negutegiak, oilategiak...) diagnostiko bat egingo da. Talde guztiek lagunduko dute diagnostiko hori egiten.
3. Kooperatiba agroekologiko baten funtzionamenduaren alderdi guztiak ezagutzea -araudia, estatutuak, ardurak, erabakiak hartzeko mekanismoak...-.
4. Lan-plangintza propio bat sortzea produktu ekologikoen ekoizpen- eta merkatu-ratze-sistema abian jartzeko (talde bakoitzak bere gaiari dagokiona: ortua, landa, negutegia, oilategia...).
5. Kooperatiba agroekologikoa abian jartzea.
6. Prozesu osoan zehar hausnarketa-egunkari kolektibo bat sortzea, taldeka. Horretarako, astean behin, taldeek denboratxo bat emango diote egunkarian honako hauek idazteari: egindako lanaren balorazioa, gorabeherak, aurrerapenak, ondorioak eta -behar izatekotan- beste alderdi batzuk, hala nola lan-giroa, eguneko lanarekiko gogobetetze-maila... (Ikus 2. eranskina).
7. Prozesu osoa ebaluatzea.



## 2. Problematikara lehen hurbilketa

Erronka honen helburua da gazteek ulertzea nagusi den elikadura-eredua jasanezina dela:

Ekoi-zen-modu industrialak eta intentsiboak erabiltzen dituelako. Eredu horiek, bada, energia- eta ur-input handiak erabiltzen dituzte, ongarri eta plagizida kimikoak behar dituzte, eta gizarte-ondorio-landa eremuaren hustea, nekazariei lurra kentzea, tradizioko laboreen ordean monolaborantza ezartzea, biztanleak lekualdatzera behartzea...- eta ingurumen-inpaktu-bioaniztasuna galtzea, lurzorua narriatzea, erosioa, kutsadura, produktuak kilometro asko garraiatzea, klima aldaketa eragiten duten berotegi efektuko gasak isurtzea...- handiak sortzen dituzte.



Eredu hura ulertzeko honako bideo hauek ikustea gomendatzen dugu:

- Alimentando a Europa; Soberanía Alimentaria y Agroecología (Europa elikatuz; Elikadura Burujabetza eta Agroekologia, 3 minutu eta 50 segundo) <http://www.attac.tv/2014/03/19050>
- Soberanía alimentaria - Esther Vivas (Elikadura Burujabetza, 7 minutu eta 19 segundo) <https://www.youtube.com/watch?v=M0WC0FtdImE>

Ikasleek arazoaren dimentsio guztiak ulertu dituztela egiaztatuko dugu, horri aurre egiteko ekimenak pentsatu ahal izateko moduan. Horretarako zenbait galdera egingo dizkiegu, hala nola hauek:

**Zer arazo landuko ditugu?**

**Zertarako balio izango du erronka hau lantzeak?**

**Nola garatuko dugu?**

**Zer estrategia erabil ditzakegu?**

**Zein izan daiteke segidari egokiena?**

**Zer jakin behar dugu arazoari aurre egiteko?**

**Zer baliabide erabil ditzakegu?**

### 3. Aldez aurretik ditugun ezagutzez jabetu

Zertan dira desberdinak nekazaritza konbentzionala eta agroekologia?

<http://entrepueblos.org/ecomenjadors/castellano/arxiu/v2i.pdf>

<https://www.youtube.com/watch?v=xR4qyxm5yE8>

Zer dakizu emakumeek elikagaien ekoizpenean duten eginkizunari buruz?

<https://www.diariodeleon.es/articulo/sociedad/mujeres-son-70-produccion-alimentos-mundo/201909210202571940377.html>

Zergatik da garrantzitsua gertuko elikagai fresko eta naturalak aukeratzea?

<https://www.consumer.es/medio-ambiente/por-que-es-tan-importante-elegir-alimentos-de-proximidad.html>

Zure zonaldeko klimari dagokionez, landatuko duguna aukeratzekoan kontuan hartu beharreko ezaugarrietako batzuk aipa ditzakezu? Eta lurzoru motari dagokionez?

Zure eskualdekoak diren barazki-barietateak ezagutzen dituzu?

Zeintzuk dira ongarri naturalak?

Ba al dakizu zer nolako nekazaritza-ustategiak dauden zure zonaldean?

Ezagutzen al duzu, zure zonaldean, emakumeak buru dituen ekimenik -bai nekazaritzako ekoizpenekoak, bai merkaturatzekoak-?

Zure herriko/hiriko dendetan zure eskualdean ekoiztako elikagairik saltzen da?

Ba al dakizu zure zonaldean tokiko eta sasoiko produktu ekologikoen eskaririk dagoen?

Ba al dago kontsumo-talderik bizi zaren tokian?

Ezagutzen al duzu beste ekimenik? Eman begiratu bat hauei:

<https://toogoodtogo.es/es>

<https://www.economiasolidaria.org/noticias/viaja-dentro-de-los-mercados-sociales-y-la-economia-solidaria/>

Eta, zehazki, kooperatibei buruz:

Zer nolako kooperatibak ezagutzen dituzu?

Zer ezaugarri dituzte?

Zer eginkizun dituzte bazkideek?

## 4. Behar dugun informazioa eskuratu eta antolatu

Ikasleek behar duten informazio guztia biltzeko momentua da, lanarekin hasteko, batzordeak abian jartzeko, horien lan-plangintza espezifikoak zehazteko, ingurunea eta bertako eragileak behatzeko, merkatu-ikerketaren zehaztapenak mugatzeko, ekoizpen ekologikoari eta kooperatibei dagozkien arauak biltzeko... Hau da, erronka honekin hasteko behar dituzten datu eta informazioak eskuratu ahal izateko.

Galderari erantzuteko ikasleek honako hau egin beharko dute:

a) Lan taldeak abian jarri eta horietako bakoitzak ikertu beharko dituen itemak zehaztu:

LANTALDEAK	IKERTU BEHARREKO ITEMAK	IKASKETAREN EMAITZA
Landa/ortu taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zure zonaldeko klimaren ezaugarriak, haziko ditugun barietateak aukeratzeko kontuan hartu behar ditugunak</li> <li>Lurzoru motaren eta labore egokien ezaugarriak</li> <li>Tokiko barazki-barietateak</li> <li>Izurriteak prebenitzeko sistema naturalak, organikoak</li> <li>Ongarri naturalak</li> <li>Txandakatzeak, elkarreak eta polilaborantza</li> <li>Ureztatze sistema egokienak zehaztea</li> </ul>	<b>AO</b> IE1 IE2 IE3 IE7  <b>LEE</b> IE2
Negutegi taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ingurumena kontrolatzeko sistemak eta elementuak Haize-babes motak eta horien ezaugarriak</li> <li>Hazitegiak jartzea</li> <li>Konpostaje-teknikak</li> <li>Neguko barazki motak, barietateak, eta nutrizio- eta ur-beharrak eta laboreak horien arabera aukeratzeko</li> </ul>	<b>NE</b> IE2 IE3 IE4 IE5 <b>LEE</b> IE2
Oilategi taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Beharrezko instalazioak</li> <li>Tokiko oilo-arrazak eta -barietateak</li> <li>Oiloaren ekoizpen-zikloa</li> <li>Zaintza eta elikadura</li> <li>Animalien ongizatea bermatzeko prozedurak eta sistemak</li> </ul>	<b>AE</b> IE1 IE3 IE5

LANTALDEAK	IKERTU BEHARREKO ITEMAK	IKASKETAREN EMAITZA
<b>Kudeaketa ekonomiko taldea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zure zonaldeko ekoizpenaren, banaketaren, merkaturatzearen eta kontsumoaren ezaugarrien diagnostiko laburra</li> <li>• Zure zonaldean dauden nekazaritza-ustiategi motak</li> <li>• Zure herrian/eskualdean produzitutako elikagaien merkaturatzea</li> <li>• Zure herriko/hiriko dendei banatzea</li> <li>• Merkatu-ikerketa bat egiteko urratsak</li> <li>• Tokiko eta sasoiko produktu ekologikoen eskariak zure zonaldean dituen ezaugarriak</li> <li>• Zure zonaldean kontsumo talderik -edo kontsumoko beste alternatibarik- dagoen jakiteko ikerketa</li> <li>• Produktuen salneurria ezartzea</li> </ul>	<b>NEPM</b> E1 IE4 <b>EEE</b> IE2 IE3 IE4
<b>Kooperatiba taldea (pertsonak eta enpresa)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kooperatiben ezaugarriak, balio etiko eta sozialak</li> <li>• Kooperatibaren eraketan, jardueran eta estatutuetan bete beharreko arauak.</li> <li>• Nekazaritzako produktu ekologikoen merkaturatzeari dagozkion arauak</li> <li>• Sustapen eta publizitate teknikak</li> <li>• Teknologia berriak erabiltzea</li> </ul>	<b>NEPM</b> IE2 <b>EEE</b> IE2 IE3

b) Talde bakoitzak zehaztu beharko ditu bere lan-plangintza, arduen banaketa, eta banakako lanerako, partekatze, ezagutzak trukatzeko eta informazio aztertze denbora.

c) Ikerketa prozesua abiatzea. Horretarako, informazioa bilatzeko lana antolatu beharko dute aurreko taulan aipatutako item horien inguruan. Horrek guztiak, bada, ikasleek jakin behar duten hori erakutsi nahi du.



d) Eskuratutako informazio guztia antolatu eta sistematizatu beharko dute, taldekideekin partekatutako karpeta batera igotzeko. Taldeko kideek informazio-fitxa guztiak irakurtzeko konpromisoa hartzen dute, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko uneen aurretik.

Asteroko koordinazio mekanismoren bat ezartzea komeni da, talde bakoitzak bere ikerketa-esparruaren gainean zer egiten ari den ikusteko. Hona hemen iradokizun batzuk:

- Excel orri bat sortzea. Hura partekatutako karpeta sartuko dugu eta talde bakoitzak gai nagusiak, ideia azpimarragarriak, beste taldeentzat garrantzitsuak izan daitezkeen ikaspenak eta ondorioak sartuko dituzte bertan...
  - Sintesi bat egitea (Excel orriko informaziotik atera daiteke), zirkuluen arteko komunikazioa bermatzen duten lotura bikoitzekin edo, zuzenean, batzarrean partekatzeko.
- e) Beti kontuan hartu astero (edo maizago, hala erabakitzen badute) hausnarketa-egunkari kolektiboan idatzi beharko dituztela eginkizunen garapena, ikasitakoa eta egindako aurrerapenak, lan-giroari eta talde barruko harremanei buruzko hausnarketak, etab. Egokiena litzateke egunkarian deskribapena, azterketa eta balorazioa uztartzea. Garrantzitsua da, halaber, idatzitakoa taldearen adostasunaren emaitza izatea (kasu honetan ere soziokraziaren arauak aplikatuko ditugu). Desadostasunik badago, horiek ere agertu behar dira. Ez dugu ahaztu behar egunkari kolektiboa dela. Asteko hausnarketako une honetan irakasleen bide-laguntza beharrezkoa da. Irakasleek lan-prozesuan izandako elementu positibo guztiei balioa emanez lagun dezakete: ikasitakoa, erabaki kolektiboak hartzeko eta gatazkak konpontzeko ahaleginak, taldekideek elkarri emandako laguntza, etab. Hau da, ondo egindako lana azpimarratzea. Era berean, ikasleei gogoraraziko diete egunkarian ez direla bakarrik idatzi behar egindako ekintzak, ikasitakoa edo plangintzan aurreratutakoa, izan ere, arlo afektiboari eta emozionalari eta genero-ikuspegiari eta berdintasunari dagokien guztia ere idatzi behar dute. Sentimenduen adierazpena, ikaskideekiko harremana, rol generizatuak ez egotea, eginkizunen banaketan ardurakidetzaz jokatzeko, elkar zaintzea eta laguntzea, lankidetzako eta harremanen kalitatea, giroa... eta baita ere tentsioak, gatazkak eta zailtasunak...







## 5. Prozesuari buruzko ideiak eta alternatibak sortu

Talde bakoitzak informazioa aztertu eta ondorioak atera beharko ditu, hauek geroko eztabaida zabalago baterako proposamen bezala ulertuta (zer landatu edo nola antolatu lana gune bakoitzean -ortua, negutegia, landa...- edo nola eta noiz egin merkatu-ikerketak edo nolakoak izango diren kooperatibaren estatutuak edo zein izango den produktutako elikagaien salneurria...).

Era berean, talde bakoitzak aukeratu beharko du aurkezpen modua (gela osoarekin partekatze aldera). Horrek argia, laburra eta egokia izan beharko du. Aurkezpenarekin batera beharrezkoak diren dokumentuak, irudiak eta/edo bideoak erabili ahal izango dituzte. Gainera, erabaki beharko dute aurkezpena nork egingo duen -ikasle bakarra bada- edo nolakoa izango den ordena alternatiboa eta zer edukiz arduratzen den kide bakoitzak -aurkezpena guztion artean egiten badute-.

## 6. Talde bakoitzaren aurrerapenak aurkeztu

Taldeen artean partekatzeko unea da, gelak proiektu osoa ezagutu eta uler dezan. Horrela, aurrerago erabakiak eta ardura berriak hartzeko aukera izango du.

Urrats honetan, talde bakoitzak ordura arte egindako lanaren emaitza aurkeztu du jada, eta erabaki kolektiboak hartzea eskatuko dituzten alderdiak identifikatuko ditu.

## 7. Lan-plangintza bat adostu

Proiektua, komuna da gela osoarentzat eta bakarrik burutuko da talde guztiek elkarrekin eta modu koordinatuan lan egiten badute.


Garrantzitsua da gelakide guztiek iritzia ematea eta gai guztiei buruz erabakitzea, nahiz eta hasiera batean bere taldeari egokitu ez izana. Prozesu horretan, aukera dute proposatzeko, aldatzeko, zalantzan jartzeko...

Eztabaida eta erabakiak hartzea antolatze aldera, irakasleak soziokraziaren printzipioak eta arauak gogoraraziko ditu (ikus I. eranskina). Izan ere, sistema hori aplikatuko da bai deliberazio-prozesuan eta bai amaierako akordioetan.

Gainontzeko ikaskideek zalantzak adierazi edo argibide gehiago eskatu ahal izateko unea egongo da. Behin zalantzak argituta eta elkarrekin eztabaidatuta, gaiei buruzko erabakiak hartzeko unea izango da. Gaiak banan banan aurkeztuko dira eta soziokraziaren arauen arabera.

Erabakiak hartzeari dagokionez, onespén bidezko akordioak lortzeko soziokraziak proposatzen dituen urratsak gogorazi nahi ditugu.

## Erabakiak hartzeko prozesua soziokrazian



Fase hau bukatzerako, kooperatiba agroekologikoari buruzko oinarritzko akordioak lortu beharko dituzte.

## 8. Ekintzak planifikatu

Talde bakoitzak aurreikusitako ekintzen kronograma ahalik eta errealistena egin beharko du.

Une honetan, kronograma bezain garrantzitsua da erronka giro atseginez -aintzatespenez eta errespetuz- eta neska eta mutilen arteko ekitatez garatzeko neurriak hartzea.



Lanaren Banaketa Sexualaren kontzeptua landu dezakegu. Hitz ulertzeko jarraian aurkituko dituzuen bi testuak irakurtzea gomendatzen dugu. Biak dira laburrak eta ñabardura desberdinak eskaintzen dituzte:

<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2413/emakumeak-lan-munduan>

[https://www.emakunde.euskadi.eus/u72-contema/eu/contenidos/informacion/situacion\\_mujer\\_empleo/eu\\_10874/situacion\\_mujer\\_empleo.html](https://www.emakunde.euskadi.eus/u72-contema/eu/contenidos/informacion/situacion_mujer_empleo/eu_10874/situacion_mujer_empleo.html)

Behin horiek irakurrita, kontzeptuaren inguruan eztabaidatzeko eta hura gainditzeko helburua duten formulak iradokitzeko, honako gai hauen gainean hausnartzea proposatzen dugu:

- Eginkizunak txandakatzea, pertsonak guztiek gaitasun desberdinak garatzea (taldearen koordinazioa, tresnen erabilera, ikerketa-, ordezkari-, komunikazio- eta arreta-lanak, bideoak egitea...) inolako diskriminaziorik gabe -sexua, generoa, egoera fisikoa edo beste edozein-.
- Antzeko eginkizunen banaketa ekitatiboa dela zaintzea. Taldekide guztiak arduratuko dira taldearen eginkizunetarako -lurra prestatzea, laborantza, uzta; kooperatibari buruzko ikerketa eta estatutuak idaztea; diru-sarrerak eta gastuak kontrolatzeko sistema bat diseinatzea; edo beste edozein gauza-. Helburua da lan jakin batzuk hoberen -edo arinen- egiten dituzten pertsonen taldekideei laguntzea eta haien ezagutza, trebetasuna edo gaitasuna partekatzea.
- Neska eta mutilen behar eta interesei garrantzi bera ematea, inolako desparekotasunik gabe generoari dagokionez. Ildo beretik, hitz egiteko txanda errespetatzea eta besteen iritzia entzutea.
- Taldearen barruan eta besteekin zaintza sustatzen duten neurrien gainean hausnartzea eta horiek txertatzea.
- Lan-giro egokia sustatzea eta generoagatik sor daitezkeen gatazkak modu positiboan kudeatzeko gaitasuna garatzea.
- Nesken eta mutilen artean ekitatezko baldintzak sustatzen dituzten erabakiak hartzeko interesa, kooperatiban txandak eta ardurak banatzeari dagokionez.



## 9. Lanari ekin

Talde guztiak lanean hasten dira. Zehazki:

TALDEAK	EKINTZAK ETA JARDUERAK
Landa/ortu taldea	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ekoizpen ekologikoko, ingurumeneko eta lan-arriskuen prebentzioko araudia kontrolatzea prozesu osoan zehar.</li><li>• Eremua (ortua edo landa) alde zuzenetik diseinatzea landatuko den horren arabera.</li><li>• Txandakatze-, elkartze- eta polilaborantza-sistemak zehaztea.</li><li>• Makineria eta/edo tresna egokiak hautatzea.</li><li>• Tokiko eta sasoiko barazki barietateak hautatzea.</li><li>• Substratuak, hazitegiak eta landareak prestatzea.</li><li>• Ureztatze-sistema egokienak hautatzea.</li><li>• Izurriteak eta gaixotasunak prebenitzeko labore-tarteak.</li><li>• Ongarri naturalak botatzea.</li><li>• Lurra lantzea. Luberritzea, garbitzea, lurra prestatzea eta kabailoak eta/edo zapaldak antolatzea.</li><li>• Hautatutako belarkiak eta barazkiak ereiteko, landatzeko eta zaintzeko eragiketak.</li></ul>
Negutegi taldea	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ekoizpen ekologikoko, ingurumeneko eta lan-arriskuen prebentzioko araudia kontrolatzea prozesu osoan zehar.</li><li>• Instalatuko diren negutegien diseinua eta krokisa.</li><li>• Negutegiak eta haize-babesak muntatzea.</li><li>• Giroa kontrolatzeko sistemak eta elementuak hautatzea eta instalatzea.</li><li>• Ureztatze-sistemak hautatzea eta instalatzea.</li><li>• Hazitegiak egitea.</li><li>• Konpostatze-teknikak.</li><li>• Neguko barazki mota eta barietateen nutrizio- eta ur-beharrak ezagutzea eta laboreak horien arabera aukeratzea.</li></ul>

TALDEAK	EKINTZAK ETA JARDUERAK
<p><b>Oilategi taldea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekoizpen ekologikoko, ingurumeneko eta lan-arriskuen prebentzioko araudia kontrolatzea prozesu osoan zehar.</li> <li>• Beharrezkoak diren instalazioak egitea.</li> <li>• Bertako arrazako oiloak eskuratzea.</li> <li>• Oilategia abere kopuruan oinarrituta diseinatzea, dentsitatea egokia izan dadin.</li> <li>• Oilategia instalatzea -gela, pertxak, errutokia eta tranpolak.</li> <li>• Dagokionean, oiloek kanpoan mugitzeko izango duten eremua mugatzea.</li> <li>• Elikadura zaintzea eta kontrolatzea.</li> <li>• Garbiketa- eta higiene-sistemak ezartzea.</li> <li>• Animalien ongizatea bermatzeko prozedurak eta sistemak abian jartzea.</li> </ul>
<p><b>Kudeaketa ekonomiko taldea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Merkatu-ikerketa bat egitea, kooperatibaren bideragarritasuna eta ingurumenean izango duen eragina ezagutzeko, balio etikoak txertatuz.</li> <li>• Ikerketaren emaitzak interpretatzea, zure zonaldeko diagnostikotik abiatuta (4.a puntuan egin dugu). Horrek tokiko eta sasoiko produktu ekologikoen zure zonaldean duten eskariaren ezaugarriei buruzko informazioa emango du.</li> <li>• Tokiko ekoizleen sarearekin, gizarte-eragileekin eta tokiko merkatuko elikagai-denda txikiekin harremanetan jartzea, lankidetzak sustatzeko helburuz (adibidez, nekazaritzako produktu ekologikoen eskaintza osatzeko -sare horietara eta sare horietatik gure kooperatibara-).</li> <li>• Kooperatiban kudeaketa eta kontrol ekonomikoko sistema bat aukeratzea eta aplikatzea.</li> <li>• Produktuen prezioa ezartzea.</li> <li>• Ordainketa-sistemak ezartzea.</li> </ul>





TALDEAK	EKINTZAK ETA JARDUERAK
<p><b>Kooperatiba taldea (pertsanak eta enpresa)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kooperatiba agroekologikoaren ezaugarriak, helburuak, karguak eta ardurak, erabakiak hartzeko sistemak, bazkideak eta batzarra mugatzea. Eta, bereziki, bere jarduera gidatuko duten balio etiko eta sozialak.</li> <li>• Kooperatibaren eraketan, jardueran eta estatutuetan bete beharreko arauak.</li> <li>• Estatutuak idaztea.</li> <li>• Nekazaritza-produktu ekologikoen merkaturatzean bete beharreko arauak ezagutzea eta kontrolatzea.</li> <li>• Produktuak eta elikagaiak merkaturatzeko sistema diseinatzea eta abian jartzea.</li> <li>• Sustapen eta publizitate teknikak (teknologia berriak, internet eta sare sozialak, egokia bada) diseinatzea. Horien bitartez, kooperatiba eta honek eskaintzen dituen elikagai ekologikoak ezagutzera emango dituzte.</li> <li>• Salmentarako egunak eta ordutegiak zehaztea.</li> <li>• Erakusketarako eta salmentarako txandei eta ardurei buruzko akordioa.</li> <li>• Kooperatibak ematen duen zerbitzuarekiko gogobetetze-galdetegi bat diseinatzea eta kontsumitzaileen eskura jartzea. Emaitzak sistematizatzea.</li> <li>• Ekitaldi puntualak programatzea eta kanpoko ekitaldietan parte hartzea (adibidez, eskualdeko nekazaritza ekologikoko azokak).</li> </ul>

Taldeek haien eginkizunak bukatutakoan eta ekoizpen-sistemak abiatutakoan, kooperatiba agroekologikoa martxan jartzeko unea izango da.

## 10. Emaitzak partekatu eta azaldu

Behin erronka gaindituta emaitzak aztertu eta erakutsi beharko ditugu. Erakusketa hori prestatzeko, alde aurretik:

Talde bakoitzak bere lan prozesua ebaluatu behar izango du, zailtasunak eta aurre-rapenak aipatuz, taldekideen banakako ardura eta ardura kolektiboa baloratuz eta hobetzeko iradokizunen gainean hausnartuz (erronka gauzatzean egin duten hausnarketa-egunkaria oso lagungarria izan daiteke prozesuaren memoria berreskuratzeko eta sistematizatzeke).

Batzarrean, taldeek beren balorazioak aurkeztu eta lan-prozesu osoaren balorazio kolektiboan kritikoki parte hartu behar izango dute. Ebaluatuko da helburuak eta

itxaropenak bete dituzten, moduluaren berezko edukiez gain lan kolektiboaren eta kolaboratiboaren esanahia ikasi duten, kooperatiba agroekologikoa martxan jartzeak ikastetxean eta ingurunean izan duen eragina... Hemen, gainera, kontsumitzaileei egindako gogobetetze-galdetegiaren emaitzak sar ditzakete.

## II. Emaitzak ebaluatu

### EBALUAZIOA

Hauta daitezkeen modalitateen aldagarritasuna kontuan hartuta (autonomia erkidego bakoitzaren berezko curriculum-diseinuak, proposamenean zenbat modulu sartu diren, zenbat talde -ikasle talde- sortu diren kasu bakoitzean, etab.), ezinezkoa da kasu guztientzat balio duen ebaluazio-estrategia bat homogeneizatzea. Beraz, bai irakasleen ebaluazio-errubrikan, bai autoebaluazioan, irakasle-talde bakoitzak prozesuan parte hartutako moduluen irizpideak sartuko ditu.

Bai aurkeztuko ditugu, ordea, EOIK proposamen honetan jarraitutako irakaskuntza-ikasketa prozesuaren zenbait dimentsio ebaluatzeko balio duten hainbat errubrika, komunak direnak.

### IRAKASLEARENTZAT

- Genero behaketarako errubrika.
- Talde-lana ebaluatzeko errubrika.





## IKASLEENTZAT

- Irakaskuntza-ikasketa prozesuaren ebaluazioa.
- Ikasleen autoebaluazioa.

EOIK proposamen honetan, talde bakoitzak, kolektiboan, **hausnarketa-egunkari** bat egitea iradoki da, erregistratu ahal izateko egindako lana, gorabeherak, aurrerapenak, ondorioak, lan giroa, talde barruko harremanak, lanarekiko gogobetetze-maila, hobetzeko iradokizunak, etab. Agiri horrek prozesuaren memoria biltzen du eta oso balio handia du ebaluazio fase honetarako.

Egunkaria, hortaz, tresna interesgarria da irakasleentzat, prozesua ulertzeari eta behatzeari dagokionez beren ikuspegia eta ikasleena uztartzeko aukera ematen duelako. Ikasleentzat ere interesgarria da, Egunkaria prozesuaren memoria kontsultatzeko erabil baitezakete eta ebaluazioa egiteko kolektiboki sortutako informazio hori izango baitute.



## GENERO BEHAKETARAKO ERRUBRIKA (A)

	<b>BIKAIN</b> GENERO EKITATEA ETA BIZIKIDETZA ONA	<b>OSO ONDO</b> HARREMAN EKITATIBOAK IZATEKO AHALMENA	<b>NAHIKO</b> GENEROAREN ERAGINA IZAN DEZAKETEN TENTSIOAK	<b>GUTXIEGI</b> GENERO DESPAREKOTASUNA
Taldeak berez sortu badira, talde bereziak ala mistoak sortzeko joera al dute?	Modu orekatuan elkartzen dira.	Talde gehienak mistoak dira	Orokorrean bereziak, batzuk mistoak.	Erabat bereziak.
Nola banatzen dira rolak taldeetan?	Rolak txandakatzen dira pertsona guztiek hainbat gaitasun gara ditzaten (lidergoa, zirkuluen arteko lotura bikoitzean parte hartzea, komunikazioa...).	Talde gehienetan eginkizunak eta rolak ekitatiboki banatu dira, baina ez guztietan.	Talde gehienetan, banaketak genero-joera du.	Neskek laguntza- eta bitartekaritza-lanak egiten dituzte lidergo-eta ordezkaritza-lanak baino gehiago.
Taldeen bozeramaileen artean zenbat neska daude?	% 60 baino gehiago.	% 60 inguru.	% 30 eskas.	Bat ere ez.

<p><b>Arreta bera eskaintzen zaie lantaldeko nesken eta mutilen behar eta interesei?</b></p>	<p>Nesken eta mutilen behar eta interesak entzuten, baloratzen eta aintzat hartzen dira egiten ari den lanarekin bat datozen heinean, generoarekin inolako zerikusirik gabe.</p>	<p>Nesken eta mutilen behar eta interesak entzuten dira, guztiak modu orekatuan kontuan hartzeko ardura dago, baina batzuetan mutilen iritziak adierazpen handiagoa dute lan orokorrean.</p>	<p>Nesken beharrak eta interesak itxuraz entzuten dira, baina onespene eta adierazpen gutxi dute talde-lanean.</p>	<p>Nesken beharrak eta interesak bigarren mailan geratu ohi dira, haien ekarpenak gutxietsi egiten dira edo ez zaie garrantzirik ematen talde-lanean.</p>
<p><b>Generoari lotutako arrazoiengatik gatazkarik edo tentsiorik izan da?</b></p>	<p>Taldeak harmonia ona du eta generoari lotutako gatazkak konpontze aldera modu positiboan esku hartzeko gaitasuna garatu du.</p>	<p>la ez da tentsiorik izan, eta taldeak normaltasunez konpondu ditu izan direnak.</p>	<p>Alde horretatik, tentsio batzuk daude baina puntualak, edo ez dut identifikatzen generoarekin zerikusia duten.</p>	<p>Errespetu falta, gutxiespena edo bereizkeria. Sarritan, nesken edo beste edonoren aurkakoak baina irudiarri edo genero-estereotipoei dagozkionak (maritxu, mari-mutil, lodikote, mehe, etab.).</p>





## GENERO BEHAKETARAKO ERRUBRIKA (B)

<b>BIKAIN</b> <b>GENERO EKITATEA</b> <b>ETA BIZIKIDETZA</b> <b>ONA</b>	<b>OSO ONDO</b> <b>HARREMAN</b> <b>EKITATIBOAK</b> <b>IZATEKO</b> <b>AHALMENA</b>	<b>NAHIKO</b> <b>GENEROAREN</b> <b>ERAGINA IZAN</b> <b>DEZAKETEN</b> <b>TENTSIOAK</b>	<b>GUTXIEGI</b> <b>GENERO</b> <b>DESPAREKOTASUNA</b>
<p><b>Koordinazioa, infor- mazioa, delibera- zioa eta onespena soziokraziaren berezko estrategiak dira. Interesez entzun al dira esku-hart- zeak? Eten al da hitz egitean?</b></p>	<p>Entzute aktiboa egiten dute, hitza duenari arreta eskaintzen diote eta informazioa argitzen eta komunikazioa hobetzen duten galdera edo ekarpenekin parte hartzen dute.</p> <p>Hitz egiteko txanda errespetatzen dute eta besteen iritziak entzuten dituzte.</p>	<p>Arreta eta interesa eskaintzen dute, baina interakzio maila ertaina erakusten dute.</p> <p>la ez da eten, eta eten denean ere ez da genero-joerarik hauteman.</p> <p>la beti erakutsi dute interesa, baina interakzio-maila txikia izan da.</p> <p>Batzuetan eten da, batez ere neskei.</p>	<p>Ez dute interesik agertu, eta ez diefe jaramonik egjin ikaskideei.</p> <p>Askotan eten da, batez ere neskei.</p>



## Edukiak genero-ikus- pegitik landu dituzte?

Emakumeek elikaduraren arloan duten zeregina (lan produktiboa, erreproduktiboa eta zaintza-lana, komunitate-lana) bistaratzen duten informazio-iturrietara jo beharra dagoela ohartzen dira.

Elikadura-eredu bakoitzaren egokitasuna baloratzerakoan, eredu bakoitzak emakumeengan duen eragina (positiboa/negatiboa) eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sortzeko duen gaitasuna aztertu dituzte.

la beti ohartzen dira emakumeek elikaduraren arloan duten zeregina (lan produktiboa, erreproduktiboa eta zaintza-lana, komunitate-lana) bistaratzen duten informazio-iturrietara jo beharra dagoela.

Elikadura-eredu bakoitzaren egokitasuna baloratzerakoan, eredu bakoitzak emakumeengan duen eragina (positiboa/negatiboa) aztertu dute.

Batzuetan bakarrik ohartu dira emakumeek elikaduraren arloan duten zeregina (lan produktiboa, erreproduktiboa eta zaintza-lana, komunitate-lana) bistaratzen duten informazio-iturrietara jo beharra dagoela.

Batzuetan, eredu bakoitzak emakumeengan duen eragin bat (positiboa/negatiboa) aipatu dute .

la ez dira ohartzen emakumeek elikaduraren arloan duten zeregina (lan produktiboa, erreproduktiboa eta zaintza-lana, komunitate-lana) bistaratzen duten informazio-iturrietara jo beharra dagoela.

Ez dira gai eredu bakoitzak emakumeengan duen eraginik (positiboa/negatiboa) aipatzeko.

## GENERO BEHAKETARAKO ERRUBRIKA (C)

<p><b>BIKAIN</b> GENERO EKITATEA ETA BIZIKIDETZA ONA</p>	<p><b>OSO ONDO</b> HARREMAN EKITATIBOAK IZATEKO AHALMENA</p>	<p><b>NAHIKO</b> GENEROAREN ERAGINA IZAN DEZAKETEN TENTSIOAK</p>	<p><b>GUTXIEGI</b> GENERO DESPAREKOTASUNA</p>
<p>Nesken eta mutilen inplikazioa handia izan da, eta ez da genero-baldintzatzailerik hauteman, ez talde bakoitzaren berezko lanak egitean (landa/ortua, oilategia, negutegia, kudeaketa ekonomikoa eta kooperatiba), ezta prozesuaren une bakoitzeko erantzukizunetan ere.</p> <p>Kooperatiba agroekologikoaren estatutueta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun- eta ekitate-printzipioak agertzen dira esplizituki. Karguen, arduren eta zereginen banaketa ekitatiboa izan da.</p>	<p>Nesken eta mutilen inplikazioa espero zena izan da, genero-baldintzatzailearen bat hauteman da talde bakoitzaren berezko lanak egitean edo prozesuaren une bakoitzeko erantzukizunetan, baina horiek identifikatu eta konpondu dira.</p> <p>Kooperatiba agroekologikoaren estatutueta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun- eta ekitate-printzipioak agertzen dira esplizituki. Karguen, arduren eta zereginen banaketa ekitatiboa izan da ia beti.</p>	<p>Nesken eta mutilen inplikazioa txikia izan da, batuetan lan-banaketa generizatua egin da.</p> <p>Kooperatiba agroekologikoaren estatutueta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aipatzen da. Ez da beti karguen, arduren eta zereginen banaketan aplikatzen.</p>	<p>Nesken eta mutilen inplikazioa txikia izan da eta lana eta ardura oso generizatuak.</p> <p>Kooperatiba agroekologikoaren estatutueta, ez da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lotutako printzipiorik aipatzen. Karguak, ardurak eta zereginak mutilen artean banatzen dira.</p>
<p><b>Gazteen inplikazioa ekitate-irizpideen araberakoa izan da?</b></p>			



## TALDE-LANA EBALUATZEKO ERRUBRIKA (A)

	Oso egokia	Egokia	Hobeitzekoa	Ez nahikoa
Talde-lanagatikogogobetetzea	Oso pozik agertu da taldean lan egin eta erronka elkarlanean gaituzteko prozesuan aktiboki parte hartu duelako.	Eroso sentitu da taldean lan egiten eta erronka elkarlanean gaituzteko prozesuan parte hartu ahal izan du.	Gogorik gabe baina zuzentasunez partu hartu du erronka gaituzteko prozesuan.	Ez da gustura sentitu taldean lan egiten.
Ikerketa jardueretan eta talde bakoitzari dagozkion lanetan (landa/ortua, negutegia, oilategia, kudeaketa ekonomikoa, kooperatiba) inplikatzeko eta horiek egitea	Jarrera positiboa eta proaktiboa izan du, taldeari bere gaitasunak emanaz eta gainerako ikaskideengandik ikasiz.  Lan-giro egokia sortzen laguntzen du, eta gainerako ikaskideen kritikak eta gomendioak onartzen ditu.	Jarrera aktiboa izan du eta egokitu zaizkion eginkizunez arduratu da.  Normalean, lan-giro egokia sortzen laguntzen du, gainerako ikaskideen kritika eta gomendio gehienak onartzen ditu.	Bere eginkizunak egin ditu, gutxienezkoa bermatuz, baina ez da gehiago inplikatu.  Ez du lan-giro egokia sortzen laguntzen eta ez ditu gainerako ikaskideen kritikak eta gomendioak onartzen.	Ez ditu beti bere eginkizunak egin, ez denboraren aldetik eta ez formaren aldetik.  Lan-giro txarra sortzen du, ikaskideei kritikak egiten dizkie baina berak ez ditu onartzen.

## TAIDE-LANA EBALUATZEKO ERRUBRIKA (B)

	Oso egokia	Egokia	Hobetzekoa	Ez nahikoa
<p><b>Norberaren erantzukizuna</b></p>	<p>Erronka gainditzeko prozesuaren fase guztietan parte hartu du eta egokitu zaizkion jarduera guztiak egin ditu.</p> <p>Oso ondo antolatzen ditu lanak eta modu eraginkorrean kudeatzen du denbora.</p>	<p>Erronka gainditzeko prozesuaren fase guztietan parte hartu du eta egokitu zaizkion jarduera gehienak egin ditu.</p> <p>Ondo antolatzen ditu lanak eta denbora.</p>	<p>Interes gutxi adierazi du erronka gainditzeko prozesuaren fase guztietan parte hartzeko eta proposatu diren jardueren artean ezinbestekoak baino ez ditu egin.</p> <p>Lanaren plangintza eta denboraren kudeaketa hobe daitezke.</p>	<p>Ez du parte hartzeko interesik adierazi eta ia ez ditu egin egokitu zaizkion jarduerak.</p> <p>Lanaren plangintza kaotikoa izan da eta aurreikusitako denborak ez dira inondik inora nahikoak izan.</p>
<p><b>Kooperatiba aurkeztea eta abian jartzea</b></p>	<p>Aurkezpen bikaina egin dute. Kooperatiba sortzearen eta abian jartzearen zentzua genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren printzipioetan oinarritu dute. Produktuak aurkeztu eta argi azaldu dute eredu agroekologikoaren abantaila elikadura bidezko, osasungarri eta jasangarri baterako.</p>	<p>Aurkezpena ondo dago. Elikadura osasungarria eta jasangarria aipatu dute kooperatibaren eraketaren oinarrian dagoen printzipio gisa. Produktuak aurkeztu dituzte eta sasoioko elikagai osasungarriak direla azaldu dute, tokian produzituak Ekimenaren interesa azpimarratzen dute baina ez dute genero-ikuspegidun elikadura burujabetzarekin lotzen.</p>	<p>Aurkezpena onartzeko modukoa da, Kooperatiba eta honen produktuak aurkeztu dira, tokiko elikagaien alde egin beharra azpimarratuz, baina ez da genero-ikuspegidun elikadura burujabetzarekin lotu, ezta elikadura bidezko, osasungarri eta jasangarri baten garrantziarekin ere.</p>	<p>Aurkezpena eta egitura eskasak dira. Kooperatibaren interesa eta zentzua azaltzeko argudioak nahasiak eta loturarik gabeak dira.</p>



<p><b>Parte-hartzea</b></p>	<p>Ikerketa-prozesuan: landutako gaiekiko interes handia erakusten du, galdera egokiak egiten ditu, bere iritzi eta gogoeten bidez laguntzen du, klaseko eztabaidetan aktiboki parte hartzen du eta bere kideen argudioei adi eta irekita agertzen da.</p> <p>Talde bakoitzari dagozkion zereginetan (landa/ortua, oilategia, negutegia, kudeaketa ekonomikoa eta kooperatiba): zereginen ardura hartzen du, denborak ezin hobeto kudeatzen ditu, bere taldearen jardueren martxa onari laguntzen dio.</p>	<p>Ikerketa-prozesuan: landutako gaiekiko interesa erakusten du, bere iritzi eta gogoeten bidez laguntzen du, klaseko eztabaidetan aktiboki parte hartzen du.</p> <p>Talde bakoitzari dagozkion zereginetan (landa/ortua, oilategia, negutegia, kudeaketa ekonomikoa eta kooperatiba): egokituako zereginak egiten ditu, denborak ondo kudeatzen ditu, bere taldearen jardueren martxa onari laguntzen dio.</p>	<p>Ikerketa-prozesuan: landutako gaiekiko interes nahikoa erakusten du, klaseko eztabaidetan iritzi edo gogoetak eskatzen zaizkionean soilik parte hartzen du.</p> <p>Talde bakoitzari dagozkion zereginetan (landa/ortua, oilategia, negutegia, kudeaketa ekonomikoa eta kooperatiba): orokorrean, egokituako zereginak egiten ditu, denborak betetzeko zailtasunak ditu eta horrek taldearen jardueren martxa onean eragiten du.</p>	<p>Ikerketa-prozesuan: landutako gaiekiko interes gutxi erakusten du, bere iritziak eta gogoetak adierazteko zailtasuna du eta ezinbestekoa denean baino ez du parte hartzen klaseko eztabaidetan.</p> <p>Talde bakoitzari dagozkion zereginetan (landa/ortua, oilategia, negutegia, kudeaketa ekonomikoa eta kooperatiba): ez da egokituako zereginen ardurak, denborak txarto kudeatzen ditu, eta horrek taldearen jardueren kalte egiten die.</p>
-----------------------------	--	---	--	--



## TAIDE-LANA EBALUATZEKO ERRUBRIKA (C)

	Oso egokia	Egokia	Hobetzekoa	Ez nahikoa
<p><b>Jarrera eta balioak</b></p>	<p>Kritikoagoa da erronka lortzera bideratutako ikerketa-prozesuan jaso duen informazioari esker. Elikaduraren problematika jorratzeko ikuspegi desberdinak baloratzen ditu eta dimentsio tokiko-globala kontuan hartzen du. Badaki zer lotura dagoen kontsumo-ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan artean. Planteatutako erronka lortzeko aktiboki parte hartu duenez, elikadura aldatzeko prest dago, ohitura osasungarriagoekin eta kontsumo arduratsuagoarekin. Solidarioa eta enpatikoa da, bai hurbileko eta bai urruneko errealitate eta pertsonekin. Planetaren kontserbazioarekin ere hala da, kontsumoaren eta ingurumen- eta gizarte-inpaktuaren arteko lotura ulertzen baitu.</p>	<p>Kritikoagoa izaten hasi da erronka lortzera bideratutako ikerketako prozesuan jaso duen informazioari esker. Aurkeztutako arazoa ikuspegi tokiko-global batetik baloratzen du. Ohartzen hasi da zer lotura dagoen kontsumo-ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan artean. Planteatutako erronka lortzeko aktiboki parte hartu duenez, elikadura aldatzeko prest dago, ohitura osasungarriagoa eta kontsumo arduratsuagoa izateko. Solidarioa eta enpatikoa da hurbileko errealitateekin eta planetaren kontserbazioarekin.</p>	<p>Espiritu kritiko gutxi du, daukan informazioa errepikatzeke joera du. Aurkeztutako arazoa bere egunerokoarekin lotutako alderdien arabera soilik jorratzen du. Kontsumo-ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko lotura azaltzeko zailtasunak ditu. Planteatutako erronka lortzeko prozesuan espero zena baino gutxiago parte hartu du. Hortaz, orain arte izan duen elikadura-eredu osasungaitza eta eutsiezinari uko egitea eskatzen ez duten aldaketak bakarrik egiteko prest dago. Elkartasun eta enpatia gutxi erakusten du gizarte- eta ingurumen-arazoan aurrean.</p>	<p>Informazioa kritikoki aztertzeke zailtasunak ditu. Elikaduraren problematikari buruz, loturarik gabeko irakurketak eta/edo irakurketa partzialak egiten ditu. Ez da kontsumo-ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko lotura ulertzeko gai. Planteatutako erronka lortzeko prozesuan ez du nahikoa parte hartu du. Hortaz, ez du ematen elikadura osasungarriagoa eta kontsumo arduratsuagoa izateko aldaketak egiteko prest dagoenik. Ez da solidarioa pertsona pobreekin ezta planetarekin ere, eta gainera zoritxarreko eta/edo errespetu gutxi iruzkinak egiten ditu.</p>

## IKASLEEK IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA

### PROZESUA EBALUATZEN DUTE

#### Irakasleen jarduera

- Irakasleak argi azaldu du lan-proposamena, sortutako zalantzak argitu ditu eta gelako erritmoetara moldatu da.
- Irakasleak sortutako ikasketa-giroak honako hauek sustatu ditu: gizarte-interakzio positiboa, parte-hartze aktiboa taldearen eginkizunetan eta ikasteko motibazioa.
- Irakasleak bilaketa aktiboa, lankidetzeta, eta elkarri laguntzeko interakzioa sustatu ditu gelan.
- Irakasleak hainbat ikasketa-estrategia iradoki ditu pentsamendu kritikoa garatzen laguntzeko eta ikerketa-prozesuak errazteko.



#### Erronketan Oinarritutako Ikasketa Kolaboratiboaren (EOIK) metodologia

- Lan-plangintza argia eta erakargarria izan da.
- Elikaduraren problematikari dagozkion edukiak iradokitzaileak eta erakargarriak izan dira.
- EOIK metodologiak alderdi berriak ezagutzea eta diziplinarteko ikasketa erraztu du.
- Metodologiak aktiboki parte hartzeko eta taldean eztabaidatzeko aukera gehiago eskaintzen ditu.
- Taldeei egokitutako eremuetan egindako lanak (landa/ortua, negutegia, oilategia, kudeaketa ekonomikoa eta kooperatiba) teoria eta praktika lotzea erraztu du eta gelatik eta ikastetxetik kanpo ere ikasteko aukera eman du.
- Talde-lanak ikerketa-prozesua eta kooperatiba abian jartzeko prozesua aberastu ditu.
- Taldekideen arteko interakzioak prozesuan sortutako zailtasuna gainditzea ahalbidetu du.
- Taldeen arteko komunikazioan eta koordinazioan soziokrazia aplikatzeko proposamena egokia izan da ikasitakoa komunikatzeko eta erabakiak hartzeko.

## AUTOEBALUAZIOA

#### Banakakoa

- Oso motibatuta egon naiz elikaduraren problematikari buruzko lan-proposamenearekin eta EOIK metodologiaren bitartez kooperatiba agroekologiko bat abian jartzearekin.

- Talde-lanari esker kolaboratzen ikasi dudala uste dut, baita nire harreman sozialetan eta pertsona artekoetan erabilgarriak diren gaitasunak garatu ditudala ere.
- Prozesuan, plangintzan eta eginkizunetan erabili dugun genero-ikuspegiak lagundu dit estereotipoak eta jarrera sexistak eta/edo diskriminatzaileak gainditzen.
- Kooperatiba agroekologiko bat sortzeko erronkari esker, gauza berriak ikasi ditut elikadura ereduari buruz (indarrean dagoena eta alternatiboa) eta ekonomia sozial eta solidarioaren arloko jarduera profesional bat abian jartzeko eman behar diren urratsei buruz.
- Genero-ikuspegiari esker, baloratu ahal izan ditut emakumeen ekarpenak, ezagutzak eta jakintzak, baita haien eskubideak eta elikadura burujabetzaren aldeko proposamenak; eta, karguak, ardurak eta eginkizunak banatzean, berdintasuna eta ekitatea praktikatu ahal izan ditut.
- Nire ahalegintze, ardurak hartze eta eginkizun kolektiboetan laguntze maila hone-lakoa izan da: (Oso handia, handia, ertaina, txikia, oso txikia)
- Amaierako produktuarekin (kooperatiba agroekologikoa) dudan gogobetetze-maila honelakoa izan da: (Oso handia, handia, ertaina, txikia, oso txikia)
- Nire kontsumo-ohiturak hobetzeko konpromiso zehatzak eta errealistak hartzeko gai naiz.

## **Talde-lana**

- Taldeko kide guztiek beren gaitasunen arabera eman dute.
- Taldea ondo antolatu da lan kolektibotik etekin onenak lortzeko.
- Gainontzeko taldeekiko eta gela osoarekiko interakzioak oso positiboak izan dira.
- Taldeak ikerketa-prozesuan eta kooperatiba agroekologikoa abian jartzeko prozesuan sortutako zailtasunak gainditzeko gai izan da, batez ere genero-joera duten horiei dagokienez.
- Elkarrekin proposamen kolektibo bat -kooperatiba agroekologikoa- sortzeko gai izan gara, ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-eredu alternatiboa irudikatzen duena.



# AMAIERAKO OSPAKIZUNA ETA EMAITZAK ZABALTZEA



Elkarrekin, gelako ikasleek -irakasleen laguntzaz- **ekitaldi-mota bat** antolatu beharko dute. Horretara, hezkuntza komunitate osoa (irakasleak, ikasleak, familiak) eta inguruko gizarte-eragileak gonbidatuko dituzte. Ekitaldiak bi helburu izango ditu: kooperatiba agroekologikoa ezagutzera ematea eta EOIK proposamen honetan planteatutako erronka lortzeko egin duten lana ospatzea.

Hautatutako ekitaldi-mota gorabehera (ate irekiak, azoka, jaialdia...) eta hori egiteko alderdi guztiak antolatzeaz gain, ikasleek jarduera horren **zabalkunde-sistema** erabaki beharko dute (eskuorriak, kartelak, mezuak sare sozialetan...).

Eta, gainera, **tokiko hedabideei** (irratia, prentsa, telebista...) **berriarazko gonbidapena** luzatuko diete, albistea zabal dezaten. Prentsa-ohar bat edo antzekorik egin dezakete eta hedabideei arreta emateko arduradunak izendatu, badaezpada ere hauek informazioa edota elkarrizketa bat eskatuko balute.



# BALIABIDE MATERIAL ETA PEDAGOGIKO GEHIGARRIAK

ZER	NORK	NON
Soziokrazia (gaztelaniaz)	IES Giola	<a href="https://www.alimentacion.net/es/content/experiencia-de-empoderamiento-de-futuros-campesinas-y-campesinos-en-el-ciclo-de-grado-medio">https://www.alimentacion.net/es/content/experiencia-de-empoderamiento-de-futuros-campesinas-y-campesinos-en-el-ciclo-de-grado-medio</a>
Agroekologia (gaztelaniaz)	IES Giola (Ciclo Medio)	<a href="https://www.ehige.eus/wp-content/uploads/2019/10/4oct_Sonia_Resina_CATALUÑA.pdf">https://www.ehige.eus/wp-content/uploads/2019/10/4oct_Sonia_Resina_CATALUÑA.pdf</a>
COLGEX - Kudeaketa aurreratuko plataforma kolaboratiboa abeltzaintzako ustiatgien errentagarritasuna hobetzeko, eraldaketa digitalaren bitartez eta datuan oinarritutako adimena aplikatuz	HAZI	<a href="https://www.hazi.eus/eu/proyectos-hazi-2/10300-10.html">https://www.hazi.eus/eu/proyectos-hazi-2/10300-10.html</a>
Elikadura, nekazaritza intentsiboa eta elikadura-zarrastelkeria (gaztelaniaz)	El Intermedio. La Sexta. Sara Escudero	<a href="https://www.lasexta.com/programas/el-intermedio/reality-shock/deforestacion-contaminacion-y-sequia-sara-escudero-analiza-los-efectos-de-la-agricultura-intensiva_201912165d7f7740cf224755ca641f.html">https://www.lasexta.com/programas/el-intermedio/reality-shock/deforestacion-contaminacion-y-sequia-sara-escudero-analiza-los-efectos-de-la-agricultura-intensiva_201912165d7f7740cf224755ca641f.html</a>

Etiketatzea Txilen (gaztelaniaz)	El Intermedio. La Sexta	<a href="https://www.lasexta.com/programas/enviado-especial/mejores-momentos/asi-funciona-el-sistema-de-sellos-que-ayuda-a-reducir-el-consumo-de-azucar-grasas-y-calorias_201911255ddb83e0cf201c58f85879e.html">https://www.lasexta.com/programas/enviado-especial/mejores-momentos/asi-funciona-el-sistema-de-sellos-que-ayuda-a-reducir-el-consumo-de-azucar-grasas-y-calorias_201911255ddb83e0cf201c58f85879e.html</a>
Glosarioa	Bidezko Elikadura / Hegoa	<a href="https://redalimentacion.org/eu/glosario/a">https://redalimentacion.org/eu/glosario/a</a>
Elikadura burujabetza ereiten. Nekazaritza arloko Lanbide Heziketara zuzendutako Unitate Didaktikoa	Bidezko Elikadura (2019)	<a href="https://www.alimentacion.net/es/recursos/elikadura-burujabetza-ereiten">https://www.alimentacion.net/es/recursos/elikadura-burujabetza-ereiten</a>
Erronketan oinarritutako Lankidetzakaskuntzari buruzko gida. Ekonomia Sozial eta Solidarioa lantzen LHn eta Unibertsitatean	Mugarik gabeko Ekonomialeariak (2019)	<a href="https://ecosfron.org/portfolio/erronketan-oinarritutako-lankidetzakaskuntzari-buruzko-gida/">https://ecosfron.org/portfolio/erronketan-oinarritutako-lankidetzakaskuntzari-buruzko-gida/</a>
Ekonomia solidarioa: ekonomia eraldatu, gure mundua eraldatzeko. Edukien proposamena. Bilbo, REAS.	Askunze Elizaga, Carlos (2019)	<a href="https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2020/07/1_educien_proposamena.pdf.pdf">https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2020/07/1_educien_proposamena.pdf.pdf</a>
Ekonomia solidarioa: ekonomia eraldatu, gure mundua eraldatzeko. Proposamen didaktikoa. Bilbo, REAS	Ruiz Osoro, Pepe eta Calero Blanco, Vane (Sorkin, Alboratorio de saberes / Jakintzen iraultegia) (2019)	<a href="https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2020/07/2_proposamen_didaktikoa.pdf.pdf">https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2020/07/2_proposamen_didaktikoa.pdf.pdf</a>

ZER	NORK	NON
Genero-ikuspegi curriculumean eta araubide bereziko eta lanbide heziketako ikasketetako irakaskuntza-jardueretan txertatzeko gidaliburua: Lanerako Prestakuntza eta Orientabiderako (FOL) eta Enpresa eta Ekimen Sortzailerako (EES) proposamen zehatzak	Arraiz Argoitia, Begoña et al. (2015)	<a href="https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco//contenidos/libro/1_051801_0001_0001/es_def/index.shtml">https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco//contenidos/libro/1_051801_0001_0001/es_def/index.shtml</a>
Consume con lógica... ¡agroecológica!	SEAE (2018)	<a href="https://youtu.be/ccEEeICXd54">https://youtu.be/ccEEeICXd54</a>
Kooperatiba agroekologikoa (gaztelaniaz)	Cacereseko iparraldeko ekoizle ekologikoen kooperatiba	<a href="https://cooperativa-agroecologica.es/">https://cooperativa-agroecologica.es/</a>
Madrilgo Mugimendu Kooperatiboari buruzko bideoa-elkarrizketak (gaztelaniaz)	ASGECOTV (2016)	<a href="https://www.youtube.com/watch?v=heB_M9ahlu0">https://www.youtube.com/watch?v=heB_M9ahlu0</a>
Nola sortu kooperatiba-sozietate txiki bat?	Gaztenpresa (2015)	<a href="https://gaztenpresa.org/nola-sortu-kooperatiba-sozietate-txiki-bat/">https://gaztenpresa.org/nola-sortu-kooperatiba-sozietate-txiki-bat/</a>
Ekintzailetza kooperatiboa eta garapen jasangarrien helburuak (gaztelaniaz)	Madrilgo kontsumitzaile eta erabiltzaile kooperatiben elkarteak (2019)	<a href="https://www.youtube.com/watch?v=EA-ybxu5leg">https://www.youtube.com/watch?v=EA-ybxu5leg</a>
Kooperatibak eratzeko eta kudeatzeko material lagungarriak	empresdes.net	<a href="https://reasaragon.net/empresdes/materiales-disponibles/">https://reasaragon.net/empresdes/materiales-disponibles/</a> <a href="https://reasaragon.net/empresdes/">https://reasaragon.net/empresdes/</a>

## OHARRAK

- 1 Guretzat, "zaintzaren etika" besteekiko ardua onartzea da, munduan egoteko eta harremanak izateko printzipio nagusi gisa. Mundu hori harreman-sare gisa ulertzea da, horretan "nik" eta beste batzuek parte hartzen dugularik. Bertan, gainera, ongizate pertsonal eta kolektiboa autozaintzaren eta besteei ematen diegun eta besteek ematen diguten zaintzaren menpe dago. Zaintzak ezinbestekoak dira bizitzarako. Pertsoneri eta komunitateei ongizate fisikoa, psikikoa, afektiboa eta emozionala emateko jarduera guztiak dira. Zeregin horiek oso anitzak eta desberdinak dira egoeraren eta testuinguruaren arabera eta generoa, arraza, klase soziala, senidetasuna eta adina bezalako kategoriek zeharkatzen dituzte. Hala, historikoki emakumeei egokitu izan zaie zaintzaren ardua eta zeregin hari ez ikusia egin zaio, balio txikia eman ez eta bizitzaren iraunkortasunerako duen garrantzia gutxietsiz.
- 2 Guretzat, "ikuspegi feministak" dira eredu patriarkalak, heteronormatiboak eta androzentrikoak gainditzea proposatzen duten teoriak, borrokak eta esperientziak -hainbat testuingurutik eta hainbat ñabardurarekin-. Izan ere, eredu horiek sortu dituzte -eta oraindik ere sortzen dituzte- emakumeen mendekotasuna, nagusitasuneko botere-harremanen erreprodukzioa eta emakumeen ekarpenen bazterketa, gutxiespen eta marjinazio sistematikoa. Ikuspegi feministek -askotarikoak badira ere- proiektu politiko bat partekatzen dute: gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean oinarritutako mundu bat sortzea, gizarte-justiziarekin, eta zeinetan pertsona/kolektibo bakoitzak -bere egoera, baldintzak, identitateak edo ezaugarriak gorabehera- indarkeriarik eta zapalkuntzarik gabeko bizitza bizi dezakeen.
- 3 "Ikuspegi ekosozialek" azpimarratzen dute pertsonak interdependenteak eta ekodependenteak garela, gizakiok gure artean eta naturarekin lotzen gaituzten harremanak bistartzeko helburuz. Planetaren muga fisikoak eta giza-bizitzaren zaugarritasuna onartu bitartez, ikuspegi ekosozialek nagusi den eredu erabat zalantzan jartzea proposatzen dute, honek pobrezia, desperekotasuna, bazterketa eta krisi ekologiko sakon bat ekarri baititu, azken honek bizitzaren erreprodukzioa arriskuan jartzen duelarik.
- 4 Euskadiko Oinarritzko Curriculum Diseinua erabili dugu erreferentzia gisa. Adibide hori beste lurralde batzuetan aplikatzeko, irakasleek beren autonomia-erkidegoko OEKn oinaritu beharko dute.
- 5 Gobernantzako eta erabakiak hartzeko estrategia honi buruz gehiago ezagutzeko, ikus I. eranskina.

## ARGAZKIEN ATRIBUZIOAK

- 34. orrialdea. Wunderstock-ko Plaza Gazte Gunea.
- 38. eta 39. orrialdeak. Wunderstock-ko *Midianinja*.
- 42. eta 43. orrialdeak. Wunderstock-ko *Midianinja*
- 49. orrialdea. Wunderstock-ko *EI77CCA*.
- 51. orrialdea. Wunderstock-ko *EI77CCA*.



## SOZIOKRAZIA, HURBILKETA LABURRA

(Iturria: <http://sociocraciapractica.org/organizaciones-emergentes-y-sociocracia/>)

Definizio azkar baten emateko, soziokrazia gobernantzaren eta erabakiak hartzearen ikuspegi sistemiko bat da, erakundeei modu organikoan, ongizatez eta produktibitatez autogestionatzeko aukera ematen diena.

Printzipio, arau eta metodoetan, eta sistema erresilienteak eta koherenteak osatzen dituen egitura batean oinarrituz, erakundeak diseinatzen, kudeatzeko eta zuzentzeko aukera ematen du.

Soziokrazia hitza August Comtek asmatu zuen, XIX. mendearen erdialdean eta "kideen gobernua" esan nahi du, hau da, haien artean harreman soziala duten pertsonena. Aitzitik, demokrazia "demos"aren gobernua da, hau da, agian zerikusirik ez duten pertsonen multzoarena.

Batez ere XX. mendean zehar, hainbat pertsonak (pentsalariak, zientzialariak, enpresariak, etab.) hainbat diziplinatan (zibernetika, matematika, biologia, soziologia, ingeniari-ritza, etab) egindako lan aberatsek eta anitzek gizarte-antolakuntza modu berri honen oinarriak eman zituzten.

Baina, erakundeentzat, bultzadarik handiena Gerard Endenburgren eskutik etorri zen. Hura soziokrazia modernoaren sortzailetzat hartzen dute gaur egun. 1970ko hamarkadan, Enderburgek, Holandan zuen ingeniari-ritza elektrikoko enpresa familiarrean, benetako egitura soziokratiko bat esperimentatzen eta garatzen hasi zen, momentu hartako eta etorkizuneko erakundeetan ere erabil zitekeena. Ordura arte ez zen horrelakorik lortu.

1981ean, Endenburgek bere teoriak argitaratzen eta beste enpresa batzuetan aplikatzen hasi zen. Metodo horiek langileen ahalduntzea antolatzearen arazoak konpontzen dituzte eta, aldi berean, administrazio ona eta bideragarritasun ekonomikoa bermatzen dituzte: ongizateak eta produktibitateak elkarri elikatzen diote, alajaina!

Orduz geroztik, proposamen hori hamarkadetan zehar erabili da, modu arrakastatsuan, mota, sektore eta tamaina guztietako erakundeetan eta kontinente guztietan. Finkatutako esperientzietan, langileek zein agintariek eta zuzendaritza-taldeek eredu soziokratikoarekin lan egitea eskertzen dute; izan ere, konturatzen dira erakundeak kudeatzeko errazagoak, malguagoak eta egokigarriagoak direla, eta ekimenerako, berrikuntzarako, birsorkuntzarako eta erresilientziarako gaitasun handiagoa garatzen dutela.

Soziokrazia erabiltzen duten erakundeek egiaztatu dute berrikuntza eta produktibitatea igotzen dela (% 30 edo gehiago), batzar gutxiago egiten direla, absentismoa

gutxitzen dela eta erakundeko kideek inplikazio gehiago dutela. Eta, funtsezkoa den beste gauza bat: gaur egungo sistemen konplexutasunera malgutasunez egokitzen da.


## Soziokraziaren printzipioak eta arauak.

### Antolakuntza zirkularreko metodo soziokratikoa.

Enderburgek, enpresa-administrazio praktika onenak aplikatzen zituen bitartean, eraldatzen eta "birkableatzen" zuen botere autokratikoaren egitura, hau da, erakunde modernoek bizkarrezurra, irabazi asmorik izan ala ez. Izan ere, honako hau izan zen Enderburgek bere esperimenduetan atera zuen lehen ondorioetako bat: boterea funtsezko pieza da.

Eta, erakundean eta erakundetik kanpo botere-egitura eraldatzeko, tartean dauden alderdi guztien interesak zainduz, "Antolakuntza Zirkularreko metodo Soziokratikoa" (AZMS) proposatu zuen, hau da, hiru printzipiotan oinarritutako eredu erraza, horiek gauzatzeko lau arau zituena.

### Hiru printzipioak



**Baliokidetasuna.** Soziokrazian pertsona guztiak dute balioa, pertsona guztiak dute garrantzia. Enderburg adostasun kuakeroan oinarritu zen, komunitate horietan onespene bitartez hartzen baitituzte erabakiak, ekitatiboak izan daitezzen. Onespenak guztien beharrei erantzuteko helburua du, ez gehiengoaren beharrei soilik; eta inteligentzia kolaboratiboari, guztion benetako beharrei eta ikuspegi desberdinei adituz egiten du hori. Helburua ez da argudio bat beste bati gailentzea, denek elkarrekin bizi ahal izatea baizik, hauek hobetuz.

**Gardentasuna.** Dakigun bezala, informazioa boterea da eta, erabaki egokiak, kontzientek eta guztion artekoak hartzeko beharrezkoa da hura askatasunez mugitzea eta guztion eskura egotea. Enderburgek erreferentzia gisa hartzen ditu naturaren sistema biologikoak eta egitura organikoak sortzea proposatzen du, helburu espezifikoak izango dituzten zirkulu erdiautonomoekin, organismo baten zelulak izango balira bezala. Eta zirkulu horien arteko komunikazioa lotura bikoitzen bitartez gauzatzen da,

zentzu biko zirkuitu berrelikatua sortze aldera (zirkulazioa giza-gorputza, naturaren zikloak, elektrizitatea, etab.).

**Efizientzia.** Helburuak bistatik ez galtzeko eta horiek lortzeko metodo bat egon behar da. Enderburgentzat zibernetika inspirazio iturri bat izan zen, etengabeko berrelikadura. Bere proposamenean ulertzen du horren bitartez erakundea une oron gertatzen denari moldatzeko gai dela, etengabe hobetuz eta autokontrola ahalbidetuz.

## Lau arauak



Soziokraziaren metodoak funtsezko lau elementu hauek ditu: zirkuluak, lotura bikoitzak, onespena eta hautaketa irekia.

**Zirkuluak.** Antolakuntza soziokratikoa zirkulu erdiautonomoen bitarteko egitura malgu baten bidez garatzen da. Zirkulu horiek elkarri konektatuta daude, izaki bizidunen funtzionamendura iritsi nahian. Hala ere, bakoitza erdiautonomoa da; izan ere, batetik, bere erakundeko beste zirkuluekin duen harremanaren menpe dago eta, bestetik, autogestionatua da eta erabateko autogobernua du erantzukizun-eremuan, hau da, erabaki operatibo eta gobernantzako erabaki guztiak kideek hartzen dituzte.

**Lotura bikoitza.** Informazio hori kudeatzeko eta erabakiak hartzeko, zirkulu bakoitza aurrekoarekin konektatuta eta horren menpe dago "lotura bikoitz" baten bitartez. Eredu hura bada, oso bestelakoa da ohiko erakundeenarekin alderatuta, azken hauetan, informazioa eta erabakiak zentzu bakar batean baitoaz, goitik behera, alegia; eta pertsona bakar baten eskutik (nagusia). Lotura bikoitza, aldiz, zirkuluko buru operatiboak eta zirkuluak berak aukeratutako ordezkariak osatzen dute. Kide bi horiek gaineko zirkuluko kideak dira eta bertan hitz egiteko eta erabakitze eskubidea dute. Horrela bermatzen da informazioa eta erabakiak goitik behera eta betik gora ibiltzen direla.

**Onespen bidezko erabakiak.** Soziokrazian, erabaki politiko eta gobernantzako guztiak onespen printzipioaren bitartez hartzen dira. Erabaki bat onesteak esan nahi du kide batek ere ez duela horren gainean funtsezko objekziorik.

Sistemak alderatuz, batetik, demokraziak gehiengoaren bitartez hartzen ditu erabakiak eta hauek gutxiengoei inposatzen zaizkie (irabazi-galdu); bestetik, kontsentsua bakarrik

ematen da guztiek baiezkoa ematen dutenean (geldotasuna, gutxiengoen blokeoa); soziokraziak, ordea, zailtasun horiek gairatzen ditu onespeneren bitartez: erabakiak hartzen dira inork ez duenean ezetz esaten.

Onespeneran, norbaitek aurka egiten badu, proposamenari objektio bat diolako da, hura guztion onaren ikuspegian eta zirkuluaren helburuan oinarritua dagoelarik. Objektioak oparizat hartzen dira, besteek ikusten ari ez diren zerbait erakusten dutelako eta, horiek aintzat hartzean, proposamena hobetzen da.

Metodo hau erabiltzean, zenbait alderdi hartu behar dira kontuan, onspen prozesuaren garapenera dagozkionak, hala nola emozio indartsuak nola kudeatu; lotura bikoitzeko zirkulurako pertsonak aurkitzea, hauek beren gaitasunengatik aukeratuak izateaz gain, lotura boluntarioa direnak; eta objektioak benetan "funtsezkoak" diren ala ez bereiztea.

Edozein proposamenetan parte-hartzaileek beren burua "bazter" dezakete, hau da, proposamenari aurka ez egin, ezta hura babestu ere: besterik gabe, ez dute parte hartzen. Proposamena blokeatzeko aukera ere dute. Gure jarrera proposamenaren aurrean dugun "tolerantzia-mailaren" arabera izango da (badakigu proposamen bat ere ez dela perfektua izango, edo nik egingo nukeen modukoa, baina bizi naiteke proposamen horrekin?). Ezin da arrazoi pertsonalengatik blokeorik onartu. Blokeatzen duen pertsonari dagokio blokeoaren arrazoia azaltzea (nire printzipio etikoen aurkakoa da, taldearen balioen edo ikusmoldearen aurkakoa da, taldea arriskuan jartzen du...) eta talde osoari egindako blokeoa onargarria den erabakitzea. Proposamenak onar daitezke "balio-aldi" baterako, praktikan ebaluatuak izateko, hau da, probaldi moduko baterako.

Etengabe blokeatzeko beharra duen pertsonak hausnartu beharko du zergatik dagoen talde horretan.

Proposamen prozesu bat igarotzean, erabakia hartu baino lehen, proposamena egindako aldaketekin aurkeztuko da eta honako hau galdetuko da: Ba al dago kezkarik edo objektiorik proposamen honen aurrean? Ez badago erantzunik, onspena dago. Horrek esan nahi du erabaki hori nahikoa ona iruditzen zaigula momentuz eta nahikoa segurua saiatzeko.

**Hautagairik gabeko hautaketa.** Zirkulu bakoitzak hain bat rol ditu tipifikatuta (koordinatzailea/liderra, ordezkaria, bideratzailea, idazkaria). Horien hautaketa irekia da eta alde aurreko hautagairik gabekoa. Eginkizun horiek izango dituzten pertsonen hautaketa onspen bitartez egiten da, eztabaida ireki baten ostean. Onspena aplikatzeko modu bat da. Eredu horri esker, pertsonak ez dira postuarekin identifikatzen, gertatu ohi den bezala ("ni nire postua naiz") eta balio-aniztasuna sustatzen da, ikasitakoa eta rol bakoitzaren erantzukizuna partekatze aukera ematen baitu.



## 2. ERANSKINA

### HAUSNARKETA-EGUNKARIA (KOLEKTIBOA, TALDEKAKOA)


Tresna honek aukera ematen dio ikasle bakoitzari funtzio metakognitibo bat betetzeko, honako hauei buruzko hausnarketa-praktika bat abian jartzeko: bizi izandako esperientzia, ikasketa prozesua, horrekin duen konpromisoa, aurrerapenak, zailtasunak, estrategiak, etab. Hau da, ikasteko ekintzaz ohartzea da, eta, gure kasuan, bi maila inplikatuko ditu, banakakoa eta kolektiboa.

Egunkarian, hortaz, beren lan- eta ikasketa-prozesua ezaugarritzen ari diren alderdi garrantzitsu guztiak maiztasun jakin batekin erregistratuko dira.

Baliabide malgua den aldetik, edukia alda daiteke batetik bestera. Hala ere, jarraian, lan-proposamen honetan garrantzitsuak iruditzen zaizkigun zenbait ezaugarri aipatzen saiatuko gara, baita ikasleen hausnarketa bideratzeko lagungarriak izan daitezkeen zenbait galdera ere. Horien helburua da eguneroko erregistroan, alderdi formalez gain -lan-edukiak, egindako lanak, emaitzak...-, alderdi emozionalak eta harremanekoak ere sartzea.

#### Gidoi posible bat (iradokizun gisa)

<b>Taldea</b>	(zein talde, lan-prozesurako ezarri ditugu bost taldeetatik)
<b>Kideak</b>	
<b>Fasea</b>	(II urratsetako zeinetan gauden zehaztea)
<b>Astea</b>	



- **Zer egin dugu?**
- **Nola egin dugu**
- **Zer tresna/estrategia erabili ditugu jarduera garatzeko?**
- **Nola koordinatu gara?**
- **Zer nolako zailtasunak aurkitu ditugu eta nola gainditu ditugu?**
- **Zer ikasi dugu? Ikasitako zein alderdiri buruz jakin nahi dugu gehiago?**
- **Zeintzuk behar ditugu argitu eta zergatik?**
- **Gatazkarik egon al da gure taldean? (hala izatekotan, azaldu zein eta nola landu den)**
- **Nola sentitu gara? (harremanetan eta lanean giro ona garatzea laguntzen/oztopatzen duten emozioak edo alderdiak)**
- **Elkarri babesten eta lan kooperatiboan laguntzen eta parte hartzen ari garela sentitzen dugu?**
- **Gure jarrera eta gure lana egokiak direla eta taldeak horiek aintzat hartzen dituela sentitzen dugu?**
- **Gure taldean berdintasuna sustatzen ari gara?**
- **Beste gai garrantzitsu batzuk**